



ttipi-ttapa

TOKIKOM

2012ko azaroaren 15a | XXXII. urtea | 578. zenbakia

www.ttipi.net



Gehigarri bereziak

Lesakako Feriak eta
Eraikuntza gehigarria

BERA → 11

Prostituzioari buruz
mahainguru interesgarria

ZUBIETA → 24

Etxeberriko amerikanoaren
hilabete bateko bisita

GOIZUETA → 52

Umore Ona Elkartearen
eta Azienda FERIA Egunak

BAZTAN → 55

Berto saioa ikastolaren
alde azaroaren 17an



ERREPORTAJEA → 4-5

Elizondoko abesbatzak 70 urte

Azaroaren 18an kantuan ospatuko dute, kantu batekin hasi zena



ELKARRIZKETA → 3

Nieves Biurrarena,
bularreko minbi-
zia gaititu duen
sunbildarra



KANTU EGUNA → 58

Azaroaren 24an
izanen da Kantu
Zaharren Eguna,
Dantxarinean

AZPIEGITURAK → 19

Sunbillako bidegu-
rutzea moldatzeko
proiektua onartu
du Nafarroako
Gobernuak baina,
oraingoz, ez du
zehaztu obra
egiteko datarik

ZOZKETAK → 2



Txartela egiteko
deitu **948 63 54 58**
telefonora



ttipi txartelarekin

beti irabazten da!

deskontuak + zozketak + aldizkari musutruk

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoz

577. ALEKO IRABAZLEAK

* ONDDO TA PUNTO KAMISETA
M^a Elena Sansiñena Martiarena | ELIZONDO

* EREIN 2 LIBURU
Mikxibi marrau + Naraizo Tailora
Mikel Telletxea Zabaleta | BERA

* TTARTTALO 2 LIBURU
Ortiz Kameleola + Itsasargia
Gema Martiarena Uhalde | ELIZONDO

* KATXIPORRETA IRRIA ALDIZKARIA +
FAMILIEN KARTA JOKOA
M^a Angeles Agirre Txoperena | BERA

* LANKU LIBURUA + DVD + CD
Mende baten aldiarik liburua + DVD
+ M.C Txinita CD

Jose Miguel Mihura Castro | URDAZUBI

* AQUARIUM 2 SARRERA
Felix Iparagirre Oskoz | ARANTZA

zozketak



IBAIZABAL 2 LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
www.ibaizabal.com



**LESAKAKO UDAL IGERILEKUA
2 SARRERA**
Lesakako Udal Igerilekua
www.lesaka.net

deskontuak

GOIKO

BERA | %10 kopia digitaletan

JUAN J. PIKABEA

DONEZTEBE
%10, marka batzuetan ezik

MASTER

ALTZURI

LESAKA | %5 etxetresnetan

KIROLAK ZELA

BERA | %5eko deskontua

elikaC

BERA | %5 kontsultan

txinelka

ZAPATADENDA
LESAKA | %10eko deskontua

oninart



KAMISETA BAT
Oninart denda
www.oninart.com

ARKUPE
Gozategia - Txokolategia



TXOKOLATE LOTEA
Arkupe Gozategia
www.arkupgozategia.com

AQUARIUM



AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariumes.com

Urbintxa



PUNPALAPAN CD + DVD
Urbintxa eskola
www.urbintxa.org

ttipi-ttapa

Koskontako bidea 7, 31770 LESAKA
Tel. 948 635 458 Fax 948 635 457
info@ttipi.net www.ttipi.net

Hogeita hemeretzi urte zituenean sumatu zuen Nievesek koxkor bat bularrean. 2008ko Irailaren 2an ebakuntza egin eta bularra eta ganglio guztiak kendu zizkioten. Kimio eta

erradioterapia etorri ziren gibeletik. Oraindik ez da amaitu prozesua, tratamendu hormonal bat jasotzen ari baita. Gogorra izan dela dio. Zenbaitetan ispiluak islatzen zion ema-

kumea ez zuela ezagutzen aitortzen du. Baina barrendik indarra atera eta aitzinera egin zuen. Bularreko minbizia gainditu eta bizitzaz gozatzen ikasi du.

Nieves BIURRARENA | Bularreko minbizia

«Autoesplorazioa da bularreko minbiziaren aurkako arma bakarra»

E. IRAOLA |

Nola antzeman zizuten gaixotasuna?

Duela lau urte izan zen. Dutxan nengoela bularrak ukitzen hasi eta koxkor bat sumatu nuen. Hilerokoarekin koxkor aunitz izaten nituen, bi hilabetez utzi nuen ea pasatzen zen. Baina ez zen pasa. Minbizia nuela erran zidaten orduan.

Nola izan zen prozesua?

Abuztuaren 13an jaso nituen emaitzak eta bularra eta ganglioak ere kendu beharko zizkidatela erran zidaten. Irailaren 2an ebakuntza egin zidaten. Ondoren kimioaren txanda izan zen, sei sesio hartu nituen, hiru astez behin joaten nintzen eta erradioterapiako 35 sesio gero. Ez zen hor akitu dena. Bortz urtez tratamendu hormonal bat hartu behar dut.

Alderdi fisikoa edo psikologikoa, zer da gogorragoa?

Alderdi fisikoari aurre egitea kosta zait gehien. Irailaren 2an ernatu eta bularra falta nuela ikustea gogorra izan zen. Hamabi kilo gizen du nintzen sei hilabeteetan. Gero, kimio sesioa hartu eta hamabortz egunetara hilea erortzen hasi zitzaidan, sekulako kolpea izan zen. Ispiluaren aitzinean jarri eta nire burua ikustea



UTZITAKO ARGAZKIA

Nieves Biurrarena bularreko minbizia gainditu duen sunbildarra.

oso gogorra egiten zitzaidan, han agertzen zena ez nintzen ni. Ez nuen ikusten ez nire aurpegia, ez gorputza... ez ezer. Lotarakoan ere sahietsean mina hartzen nuen eta bularrak pisua duenez, pisu hori ez duzula ere nabarmena da.

Psikologikoki indartsu egotea beharrezkoa al da?

Gorputzari gogor egiten badiozu, indarra emanaz, aitzinera botatzen duzu. Ni sendatuko nintzela ziur nengoen. Medikuek minbizia nuela erran zidatenean, argi hitz egiteko eskatu nien nik nire esku zegoen guztia nik jarriko nuela.

IKASGAIA

«Bizitza larrosen parekoa dela ikasi dut. Oso ederra da baina arantzak ditu eta min ematen du batzuetan. Kolpe bakoitzarekin alertan jartzen zaitu bizitzak baina, kolpeen ondotik gehiago disfrutatzen duzu momentu guztietaz, ederragoa da dena».

Nieves BIURRARENA
Bularreko minbizia

Elkartearen batera jo al zenuen?

Diagnostikoa jakin eta berehala Saray elkartera jo nuen. Behar nuen laguntza guztia jaso nuen. Minbizia duzula jakitean inguruko jendearen babesa sumatzen duzu baina, beldur eta zalantza batzuk nituen eta batzuetan jendeak ez ditu zure ikarak ulertzen. Elkartean daudeneke bai. Lasaitasun handia ematen du zure antzeko egoeran daudenekin egoteak.

Nola ekidin liteke bularreko minbizia?

Autoesplorazioa da bularreko minbiziaren aurkako arma bakarra. Zure bularrak ezagutzea

oso garrantzitsua da. Niri horrek salbatu nau. Autoesplorazioaz gain mamografiaren aukera ere badago. 45 urtetik gorakoei mamografiak dohainik egiten zaizkie baina murrizketekin ez dakigu zer gertatuko den.

Alde horretatik heziketa bat beharrezkoa litzateke orduan?

Emakume guztiok jakin beharko genukeen gauza bat da. Ginekologorajoa ten garen lehenengo aldian autoesplorazioa nola egin erakutsi beharko ligukete, baina ez dute egiten. Informazio gehiago eman beharko litzateke. Ikusi nahi duenarentzat Sarayen web orrialdean jarri dugu nola egiten den autoesplorazioa.

Zertan aldatu zaitu gaixotasunak?

Zure proiektuak aldatzen dira. Bizitzari beste zentzu bat hartzen diozu. Niretzat lekio bat izan da. Ez dut esker-tzen minbizia eduki izana baina orain gehiago disfrutatzen dut bizitzaz. Momentua bizitzen dut. Bizitza larrosen parekoa dela ikasi dut. Oso ederra da baina arantzak ditu eta min ematen du batzuetan. Kolpe bakoitzarekin alertan jartzen zaitu bizitzak baina, kolpeen ondotik gehiago disfrutatzen duzu momentu guztietaz, ederragoa da dena.

ELIZONDOKO ABESBATZA → URTEURRENA OSPATZEKO EKITALDIK

70 urtez kantuan gozatzuz belarriak goxatzuz

Juanito Eraso eta hildako beste taldekideak gogoan izanen dituzte eta garai bateko Elizondoko abesbatzak eta egungoak elkarrekin kontzertua eskainiko dute

lraganak, orainak eta etorkizunak bat eginen dute azaroaren 18ko ekitaldietan. Abesbatzaren ibilbidea biltzen duen argazki erakusketa,

omenaldiak eta bazkaria antolatu dituzte. Kontzertua ere eskainiko dute; kantuan ospatuko dute, kantu batekin hasi zena.

Eneritz IRAOLA

1942an eman zituen lehenengo pausoak Elizondoko abesbatzak. Juan Erasok lehenengo hazia erein zuenetik 70 urte pasa dira dagoeneko. 1951n egin zuen abesbatzak lehenengo bidaia luzea. Xentimorik ez poltsikoetan, bidean kontzertuak eman zituzten bidaia ordaindu ahal izateko. Nazioarteko lehiaketa batean parte hartzen zuten lehenengo aldia zen eta

abesbatza ospetsuak entzuteko aukera bikaina zen hura. Ez ziren esku hutsik itzuli. Langolleneko (Gales) sariketan hirugarren postua lortu zuten eta Manchesterreko abesbatza famatuarekin puntuetan berdindu zuten.

Etxera itzuli orduko Galesera eginen zuten hurrengo bidaia prestatzen hasi ziren. Entsegu ugariaren ondotik ahotsek heldutasuna lortu zuten, interpreta-

zioa hobetuz joan ziren eta talde izaera hartu zuten. 1952 urteari ilusioz heldu zioten. Galesko sariketara itzuli eta postua hobetzea obsesio bihurtu zen. Urtebete lehenago egondako eszenatokira igo ziren. Urduritasuna airean. 'Tenebraefactaesunt', 'Contraponto bestiale' eta 'Cetro Efimero' obrak interpretatu zituzten. Sari banaketa iristean ezuste. 277 puntu eskuratuta Elizondoko abes-

batza izan zen irabazlea. Negar malkoak, barre urduriak eta oihuak nahi ziren. Sona handiko abesbatzei aurre hartu zieten. Ametsa egia bilakatu zen.

Lehiaketa irabazi izanakin ate aunitz zabaldu zizkion abesbatzari. Nazioartean bidaia ugari egin zituzten: Austria, Alemania, Frantzia, Italia eta Ingalaterran izan ziren.

Innsbrucken ere arrakasta itzela lortu zu-

ten. 1953an Erromako Nazioarteko Ahozko Polifonia Klasikoko lehiaketan parte hartu zuen Europatik eta Ameriketatik joandako taldeekin eta lehenengo saria eskuratu zuten Musika Madrigalista sailean eta bigarrena koro mistoen atalean. Charleroin Arte Ederretako museoan ere abestu zuten. 70. hamarkadari amaiera bertze garaipen batekin eman zioten.



50. hamarkadako Elizondoko abesbatzako taldekideak, Juan Eraso zuzen

JUAN ERASO: BERE HERIOTZAREN HAMARGARREN URTEURRENA

Ametsa errealitate bihurtu zuen zuzendaria

«Partitura ez da irakurri behar, abestu egin behar da» zion Juanito Erasok. Txikitatik antze-man zitzaizkion musikarako dohaiak. 1914an Areson jaioa, Gerrate Zibilarekin batera ekin zion bere karrerari. 1942an Elizondoko korala sortu zuen eta hamar urte beranduago, Langolleneko Abesbatza Lehiaketa ospetsuan lehendabiziko saria eskuratu zuten, Folklorean eta Polifonian lehenengo postuak lortuz.

Nazioartean ospe eta arrakasta handia lortu zuten. Izaera handiko gizona zen, musikare-

kin gozaten zuena eta bere zaletasun hori ingurukoei zabaltzeko ahalegina ere egiten zuena. «Belarri txarreko jende aunitz izan dut baina oso burugorria naizenez ia gehienei erakutsi diet abesten. Genio txarrekoa naizela diote baina eraberean pazientzia handia daukat» aipatzen zuen 2001eko maiatzean Ttipi-Ttapari eskainitako elkarrizketan.

Elizondoko herritarrekin harreman estua izan zuen. Klase partikularrak eman zituen, dohainik, bere ustez ezagutza el-

karbanatu beharra zegoelako, sarritan entzun omen zioten erraten «dakienak erakutsi dezala: balio duenak ikasi dezala eta duenak, ordaindu dezala».

1983an Elizondoko Oho-rezko Seme izendatu zuten eta 1992an, zuzendari gisara 60 urte bete zituenean Baztango adopziozko seme izendatu zuten.

2002ko abenduaren 21ean hil zen, Angeln, 88 urterekin.



ARTXIBOKO IRUDIA
Juanito Eraso
Galesen 1952an
lortutako sariekin



zuzendariarekin.

1978ko Tolosako Abesbatza lehiaketako Ahozko Polifonia klasikoko sailean lehenengo saria eskuratu baitzuten.

80. HAMARKADA

Abesbatzak Hegoafrrikaraino bidaiatu zuen, Roodeporteko lehiaketan parte hartzeko 1981ean eta 1983an. Bertako abesbatzak harrituta geratu ziren, 35 kideko taldeak hiru rogei abeslariko talde batek baino ozenago abesten zuela ikustean. Abeslarien ahoetan mikrofonoak ote zeuden begiratzen aritu zenik ere izan zen. Hegoafrikako Jaialdiaren lehenengo edizioan, Polifonia Sakroko lehenengo saria eskuratu zuten.

ERASO HIL ONDOTIK

2002an Juanito Erasok hil zen eta umezurtz geratu zen abesbatza. Une zailak izan ziren eta zalantzan egon zen abesbatzaren etorkizuna. Baina Erasok bere azken urteetan erabakia zuen nork segiko zuen bere lanarekin. Isabel

Lacarri eman zion bere lekukoa. Erantzukizun handia zuen lekukoa. Bi urteko isiltasunaren ondoren, 2004an abeslari talde ttiki batek aitzinera egitea erabaki zuen. Ekainaren 4an Elizondoko eskaini zuten kontzertua Isabel Lacarren zuzendaritzapean. Zuzendari aldatuarekin, berritze lan gogorriekin ekin zioten. Geroztik indartzen joan da eta bozpasei laguneko taldea izatetik 30ekoa izatera pasatu da. Duela urte batzuk Elizondoko abesbatza ttikia ere sortu zuten. Haur eta gaztetxoekin ere kanturako afizioa sortzeko asmoz. Azken aldiko proiektuen artean, Baztan filman parte hartu dute. Angel Illaramendik sortutako soinu bandako bi abesti interpretatu.

Bizipen ugari bildu ditu abesbatzak memoriaren kutxan. 70 urte beteta, etorkizun luzea dute aurretik. Lanean segiko dute, Juanitok sortutako abesti goxoaren oihartzuna isildu ez dadin.

ISABEL LACAR, ELIZONDOKO ABESBATZAKO ZUZENDARIA

«Errepertorio indartsu bat egin eta lanean jarraitu behar dugu»

Zein da abesbatzaren egungo egoera?

30-35 pertsonako taldea gara eta Giltzarri abesbatzako kideekin batera ere abesten dugu, ahotsak konpentsatzeko. Duela zortzi urte inguru hasi nintzen zuzendari lanetan eta gauza asko aldatu behar izan dira. Jende berria hartu dugu, aurretik zegoen jendea erretiratu egin delako. Orain etorri nahi duten guztiei ateak zabaldu dizkiegu. Maila mantendu nahi dugu eta lanean ari gara.

70 urte, erraz erraten da...

Bai, baina ez da hain erraza lortzea, urte aunitz dira. Nafarroan abesbatza gutti iritsiko ziren 70. urteurrena ospatzera. Abesten dutenak afizionatuak dira, plazer hutsez abesten dute. Jendea lanetik irten ondotik etortzen da entseguetara. Meritu handia dute, astero etortzeko konpromezua hartuta dutelako eta ez dutelako hutsik egiten. Etortzen direnei eskertu egin behar zaie.

Urteurrena ospatzeko zer antolatuz duzue?

Azaroaren 18an, hildakoei eskainitako meza bat egingen dugu, urte guzti hauen ondotik aunitz direlako dagoeneko gure artean ez dauden taldekideak. Bertalde kontzertu bat ere antolatu dugu. Gaur egungo abesbatzak eta garai batekoak batera abestuko dute. Ederra izanen da lehengo ahotsak eta oraingoak batera entzutea. Elizondoko abesbatza ttikiak ere abestuko du. Horretaz gain, eskertzak, Erasori ome-

naldia eta bazkari bat ere egingen dugu. Egun eder bat ospatzea da gure nahia. Argazki erakusketa bat ere jarriko dugu Arizkunenean eta bi astez, azken 70 urteetako argazkiak egonen dira ikusgai bertan. Argazki ugari ditugu eta horregatik aukeraketa bat egin behar izan dugu. Abesbatzaren ibilbidea argazkien bidez ikusteko modua izanen da.

Juanito Erasok hil zela hamar urte ere orain beteko dira...

Bai. Ezin liteke abesbatzari buruz hitz egin Juanito Erasok aipatu gabeko. Bera izan zen abesbatzaren sortzailea, jendea erakarri zuena eta hemengo jendearen artean abesteko afizioa sortu zuena ere bai. Familia moduko bat sortu zuten. Asko maite zuten eta asko maite dute oraindik. Lan bikaina egin zuen eta nazioarteko lehiaketak ere irabazi zituzten. Beste garai bat, beste egoera bat bizi zuten, zailtasun handiak izan zituzten baina abesbatza indartsu bat lortu zuten.

Nola ikusten duzu abesbatzaren etorkizuna?

Ongi doa, zaila izaten da jendea lortzea baina kideei dagokienez kopuru polita dugu orain. Errepertorio indartsu bat egin eta lanean jarraitu behar dugu. Eta gerora haurrak direnez etorkizuna, abesbatza ttikiak indarra hartzea komeni zaigu, urteek aitzinera egindakoan abesteko afizio handia izan eta haurrak helduen korura etorri daitezten. Horrela ez gukeke itsu-itsuan jendearen bila ibili beharko.



Isabel Lacar egungo abesbatza zuzentzen.



Nire txanda
Zuriñe ZUBILLAGA

Gertaerak

Gertaerak gertaldi dira, aldi batean gertatutakoak. Kontakizun hutsak maiz, ipuin bilakatutakoak sarri. Bakar batzuk izaten dugu hauek puzteko dohain berezia. Hitzak batu eta esaldian malabarismoak eginez esanak kolore anitzez betetzekoa. Moldatzekoa, geure erara txukuntzekoa alegia. Lagun bati entzuna eta buruan gordea dut irakasleak, bereziki, gertaldiak istorio bilakatzen iaioak garela. Konstruktibista eginik kritika, mundu aspergarri eta tristearen duenarentzako erremedio perfektua izan daitekeela esango nuke. Ba al dago gauza ederragorik lagunarteko giroari emozioa jarri eta arratsaldea entretenigarri egitekoa baino? Ahoberoak garela, hori gezurra dela, ez sinetsi ezertxo ere horri! Bereak eta bi entzuteko jaioak gara gu. Historia kontalari batzuetan, istorio kontalari besteetan.

«Ba al dago gauza ederragorik lagunarteko giroari emozioa jarri eta arratsaldea entretenigarri egitekoa baino?»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Urte zoragarri haiek

Sakatu *Atsegin dut*, ttikitan putzuetan saltoka ibiltzen bazinen, arrazoirik gabe garra-xika ari zinela matelezerrurekoren bat jaso bazenuen, negu erdian muki dariola kanpoan jolasean hoztu bazinen eta halere haurtzaro zoragarria izan zenuela uste baduzu. Klik egin dut, semeari bufanda eta alabari kaskoa jarri eta zeharka bijilatzen ditudan bitartean (Badaezpada).

Nabarmentzekoak



Endika URRUTIA
Promozioko txapeldun

Aurrelari saldiastarrak erakustaldea eman zuen azaroaren 3ko finalean eta Aizpuru III. azpeitiarrarekin batera, 40-23 irabazi zien Ezkurra II eta Patxi Olazar doneztebarrei.



Juan Fermin INDAKOETXEA
'Anerikanoa' Zubietan

1964ko Errege egunean joan zen Ameriketara Etxeberriko Juan Fermin eta hilabete batez sorterrira bueltatu da. Berriz ere Coloradon da, bertan baititu emaztea eta lau alaba.



Iñaki OTXOA DE OLZA
Dokumentala Beran

Mendizale nafarraren erreskatesaiakerari buruzko dokumentala ikusgai izanen da Beran hilaren 17an. Sarre-rako dirua SOS Hima-laya Fundaziora bideratuko du Manttalek.

Atzera begira → 2002.11.14 / TTIPI-TTAPA 338. zbk



Nafarroa garaile Zazpi Herrialdeetako Herri Kirol txapelketan

Duela hamar urte Beran jokatu zen Zazpi Herrialdeetako Herri Kirol txapelketa eta Nafarroa nagusitu zen. Horretan zerikusia izan zuen Fernando Etxegarai-ren garaipenak koxkor biltzen. Gainera, Euskal Herriko marka 10 segundotan hobetu zuen orduan (6:02). «Sei minutuko lanean hamar segundo hobetzea ikaragarria da, baina dena ongi atea zait» adierazi zuen beratarak. Ingude altxatzen bigarren izan zen Xabi Sein igantziarra, baina bere marka hobetu eta Nafarroakoa berdindu zuen, 88 altxaldirekin: «Hagitz gustura nago marka berri honekin eta entrenamenduetan saiatzen segituz, errekorra egiten ahal dut».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Konbi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Iruñe eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	38€	Europa	56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	32€
Ipar Euskal Herria	56€	Amerika eta Australia	124€	Leitza	16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Zer gertatzen da EITB-n?

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Euskaltzaindiak duela zenbait urte, besteak beste, honako hauxe idatzi zuen bere Hiztegi Batuan: <bailara iz. Gip. “eskualde txikia” (ez da haran edo ibar-en sinonimoa)>. Eta hiztegiaren orrialde bakoitzaren bukaeran beste honako hau agertzen da, alegia, Oharra: zerrenda honen arau maila du.

Hara, bada, aurreko egunetan Euskal Herrian izan diren euriteak direla eta, 2012-10-22an, Euskadi Irratiko ordu bateko albistegian (eta baita aurreko egunetan ere) honako perla hauek entzun dira: Saraitzu eta Erronkari bailaretan...; Saraitzutik Frantziarako errepidea...; ...dagokionean... eta abar, Saraitzu ongi balego bezala, bailara eta ibar edota haran gauza bera balira bezala, Zuberoa euskaldunontzat Frantzia balitz bezala, eta, dagokionean eta dagokio-

nez berdinak balira bezala.

Geroxeago, ETB1en, ordu bietako Gaur Egun albistegian, kasu honetan ere euriteak zirela eta, Liedena esan dute Ledearen orde. Eta bukatzeko, programa berean, eguraldiaren atalean, Andoni Aizpuruk kexa txiki bat egin du, normalean ez dituztelako jasotzen edo ez zaizkielako iristen Iparraldeko datuak.

Gezurra dirudi, 2012an, hainbeste

aurrerapen tekniko eta teknologikorekin, EITBK oraindik arazoak edukitzeak Ipar Euskal Herriko eguraldi-datuak lortzeko.

Ni neroni, dagoeneko nahiko aspertuta eta nazkatuta nago, urtero antzeko gauzak esan behar izateaz. Antza denez, oraingo EITBko zuzendaritzakoek ez dituzte hartzen Nafarroa Garai eta Iparraldeko kontu eta gaiak behar luketen funts eta profesionaltasunarekin. Behin baino gehiagotan ikusten dira akatsak eta errespetu eskasa; ematen du Euskal Autonomia Erkidegoz kanpoko gauzak eta arazoak bigarren mailan uzten dituztela. Sarritan, erdipurdiko moduan jokatzeko dute aipatutako terminologiarekin.

Espero dezagun, Gasteizko Eusko Legebiltzar eta Eusko Jaurlaritza berriekin, gauzak pixka bat zuzentzen hastea, baita gai honetan ere.

«**Dagoeneko nahiko aspertuta eta nazkatuta nago, urtero antzeko gauzak esan behar izateaz. Behin baino gehiagotan ikusten dira akatsak eta errespetu eskasa; ematen du Euskal Autonomia Erkidegoz kanpoko gauzak eta arazoak bigarren mailan uzten dituztela. Sarritan, erdipurdiko moduan jokatzeko dute aipatutako terminologiarekin**»

Hilen eguna, hilargiak

Ainara MAIA URROZ

Bizitza eta heriotza elkarrekin doaz beti, sortu ginenetik biltzen gara elkarrengana elkarri laguntzeko bizibidean.

Hilen eguna hurbiltzen delarik, ni hagitz sentibera nago, normalean baino sentiberago, nire kontzi-entziak memoriarekin bat egiten duelako. Duela hamar urte nire bizitza erabat eta sakon aldatu zen, eta nire bihotza negarrez eta atsekabez irauli. Nire bizitzako gizon bat, bizia eman zidan aita, hil zelako azaroaren 21ean, minbiziz, ez nuelako jada haren gorputza eta eskua izango bizitzen segitzeko, eta hamar urteko bidaia eta etapa hau bakarrik egin dut. Barka diezadala, arren, aita zenak, ene bihotzean dagoen hutsune horrek nire bekatuak eta hutsegiteak, funtsik gabeko haserrealdiak eta neurekoikeriak.

Hamar urte hauetan hutsune fisikoz bete zait bihotza, eta hoztu zait arima, baina eskerrak eman nahi dizkiot bizia

eman zidan aita zenari, itxaropenik gabe maitatzen irakatsi zidan maisuari, eta eskerrak eman nahi dizkiot era berean nire bizitzako bigarren gizonari, bizi-eraz ninduenari eta maite ninduenari, maite zaitut erran zidanari gehien behar nuelarik hamar urte haue-

tan eta munduko pertsonarik zoriontsuena egin ninduelako, beretzat bakarra eta berezia nintzela sentiararazi ninduelako eta maitemindu nintzelako.

Nire bizitzako bi gizonak jada ez daude nire ondoan fisikoki, baina ene bihotzean daude, euren ize-na duen hutsune bana dute eurek bereziki ene bihotzean. Heriotzak eramaten ditu gure ondotik gehien maite ditugunak arrazoi jakinik gabe baina hori da bizilegea, sortzeak hiltzea du zor. Batzuetan gorputzak hiltzen dira, beste batzuetan gorputzak ez dira hiltzen baina joaten dira gure ondotik, baina itxaropenez bizi nahi dut hil artean berderen, berriro ere ikusiko dugula elkar laster.

Sortzea eta hiltzea bi hari-mutur dira, eta bizitzak lotzen ditu, eta josten etenik gabe, osotasun bat garelako eta elkar maitatzeko gaudelako, nahiz eta batzuetan bakarrik eta etsiturik sentitu. Hilen eguna izan dadila gure bizitzetako hilargi, bide-erakusle.

Besarkada bat maitasunez nere bihotzeko biztanleei, baita nire bizitzako bizi-erazle guztiei oraindik. Bihotzez eta maitasunez

«**Sortzea eta hiltzea bi hari-mutur dira, eta bizitzak lotzen ditu, eta josten etenik gabe, osotasun bat garelako eta elkar maitatzeko gaudelako, nahiz eta batzuetan bakarrik eta etsiturik sentitu**»

Irakurleak mintzo

Laguntza

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA

Ttipi-Ttapa Fundazioak Nafarroako Kutxa Fundazioako *Zuk Aukeratu*; *zuk erabaki* egitasmoaren barrenean bere proiektua aurkeztu du berriz ere. 50.063 zenbakia du TTIPI-TTAPAREN proiektuak eta 26.600 euro eskatzen ditu.

Orain arte, Nafarroako Kutxako bezeroa izan behar zen egitasmo hauetan laguntza emateko, baina aurtaz ez. Nafarroan erroldatuta-

ko 18 urtetik goitiko guztiek parte har dezakete proiektuak aukeratzeko, ez da beharrezkoa Nafarroako Kutxako edo La Caixa-ko bezero izatea. Nafarroako Kutxa Fundazioak 10 euro bideratuko ditu aukeratzeko den proiekturako, baina garbi izan behar da diru hori ez duela norberak bere sakeletik eman behar, Fundazioak bakar bere funtsetatik baidzik. Internetez ere egiten ahal da www.cajana Navarra.com webgunean sartuta edo, TTIPI-TTAPAREN aukeratzeko baduzu, Lesakako bu-



Bota bertsoa
Eneko FERNANDEZ (Lesaka) • Doinua: Txikitatikan edukia dut

Etxe-kaleratzeak (desahuzioak)

Egunkariak agertzen dira milaka kasuz beteta etxearena izan behar zena, orain bizi hipoteka familia pila, helduko ez den irtenbide baten xerka banketxeen lapurreta Caixa, Kutxa ta BBK kaleratzeena, ez da berria baina ez da berriketa bihar gutako edonork ere pairatu dezake eta.

Krisi latz honek, drama handi hau atzean dauka gordea gureak soilik, ardura gaitu ta ezin ikusi ordea jende sobera, etxerik gabe ez al da nahiko grabea? kapitalaren legea ote bueltarik gabea? nahiz malkartsua eta gogorra izan daitekeen bidea denok merezi dugu mundu bat hau baino askoz hobea.

legoan lagunduko dizugu eskaera egiten. 2013ko martxoaren 30a

bitarteko epea dago proiektua aukeratzeko. TTIPI-TTAPAREN proiektu-

tuaz gain, inguruko bertze zenbait erakundek aurkeztu dute berea.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

2012ko AZAROAK 25

Berdintasunak indarkeria ezabatzen du

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN EZABAPENERAKO NAZIOARTEKO EGUNA

AZAROAK 25 PROGRAMAZIOA BAZTANGO UDALA

AZAROAK 23

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako elkarlanean

- LEKUA: Baztango Udala | • ORDUA: 12:30
- IRALPENA: 5 minutu
- ANTOLATZALEA: Baztango Udaleko Berdintasun Batzordea

AZAROAK 24

Autodefentsa ikastaroa (emakumeendako)

- LEKUA: Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxea
- ORDUA: 10:00-14:00
- EMAGIN, dokumentazio eta ikerketarako zentro feministaren eskutik
- Izen ematea: Azaroaren 5etik 20ra, Baztango udaletxeko Berdintasun Zerbitzuan, 948 580 006 telefonora deituz, igaston@baztangoudala.eu helbide elektronikora mezua idatziz
- ANTOLATZALEA: Baztango Udaleko Berdintasun Batzordea
- DEBALDE

AZAROAK 23

Emakumeenganako indarkeriaren inguruko dokumental emanaldia

- LEKUA: Eratzuko Ixitegia | • ORDUA: 21:00
- ANTOLATZALEA: Eratzuko Kultur Elkartea eta Baztango Udaleko Berdintasun Batzordea

ABENDUAK 9

Eta Karnele? Antzezlanak

- LEKUA: Iuriteko Damaso Zabalza Bilgunea
- ORDUA: 19:00
- ANTOLATZALEA: Baztango Udaleko Berdintasun Batzordea
- DEBALDE

Irurtean

AZAROAK 25erako Nafarroako emakumeenganako indarkeriaren aurkako plataformak antolatutako manifestazioa

- LEKUA: Gaztelu Plaza | • ORDUA: 12:00

La igualdad elimina la violencia

Gobierno del Gobierno de Navarra



Baztango Udala

Guztako indarkeriaren inguruko informazioa telefono deialdean: 948 580 006

Gobierno del Gobierno de Navarra

INAFI

Baztango Berdintasuneko eta Funtzioen Institutua

Instituto Navarro para la Familia y la Igualdad

Prentsatik bildutakoak



«Heriotza lehen ger-
tuagotik bizitzen zen.
Gorpua etxean beilatu
egiten zen, etxera
hurbiltzen zen jendea,
famiak prestatzen
zuen gorpua... Gauza
batzuk aldatu dira.
Harreman gutxiago
dugu heriotzarekin. Ez
dugu heriotza etxean
ikusi nahi. Ez dugu
normaltasunez ikusten
uste dugulako betiko
heldu garena hona eta
ez dugula inoiz hil
behar».

«Doluaren prozesuan
lehenbizi ikusi behar
duzu non zauden,
nola gelditu zaren eta
nondik hasi behar
duzun zeure bizitza

antolatzen pertsona
hori gabe. Eta hori
dena tristura ikaraga-
rriarekin».

«Ez da kritika bat,
baina uste dut erraze-
gi ematen direla anti-
depresiboak, antsioli-
tikoak eta doluaren
mina kentzeko beste
botikak, eta hori auni-
tzetan ez da beharrez-
koa izaten.
Sentimenduak estal-
tzen baditugu, goiz
ala berandu aterako
dira, edo bertzela zer?
bizitza osoan pastillak
hartu?»

Ainhua ARBURUA
Senda Fundaziokoa
ARGIA, 2012.11.04

11 galdera labur

**Nola aurkeztuko zenuke zure bu-
rua?**

Iruritako 19 urteko gazte alaia.

Baduzu afiziorik?

Musika. Afizio izan duten hori ogi-
bide bihurtzeko ikasten ari naiz Mu-
sikenen.

**Trikitixa lehiaketetan parte har-
tze edo klaseak emateko?**

Klaseak emateko, dudarik gabe,
aunitz gustatzen zait. Lehiaketetan
nerbioak direla eta ez dut arras gus-
tura jotzen, eta gustora jotzea da
garrantzitsua.

**Nondik datorkizu musikarako afi-
zioa?**

Familian bada afizioa, pentsatzen
dut hortik etorri izanen zaidala.

**Txistua, trikitixa, zeharkako txi-
rula... Orkestra osoko instrumen-
tuak zerorrek jotzeko asmotan?**

Jeje, denbora izango banu... orain-
goz ikasi ditudaneekin konformatu
beharko!

Gustuko musikariren bat?

Aunitz ditut. Bat errateko-
tan Louis Armstrong.

**Eguna edo gaua
nahiago?**

Gaua.

**Bidaiazteko zale-
tasuna?**

Bai, nahiz eta azken aldian ez
naizen hemendik aunitz atera...

Kanpoan egon naizen guztietan au-
niz disfrutatu dut, adibidez, Esta-
tu Batuetan pasatu nuen hilabetea.

Bizitzeko toki bat?

Gazte naizen bitartean atzerrian bi-
ziko nintzateke urte pare bat gu-
txienez, Europako edo Hego Ame-
rikako edozein hiritan. Gero, bizi-
tzak errango du.

Amets bat?

Munduko lurralde ezberdinak bisi-
tatzea eta bertako jendea eta be-
raien musika ezagutzea!

**Instrumentu berriren bat ikaste-
kotan zein?**

Bandoneoa. Trikitixarekin antze-
kotasunak dituelako eta au-
kera zabalagoa ematen
duelako musika
estilo ezberdinak
jotzeko. Hala
ere, ez da ika-
siko nukeen
bakarra...



Xabi URTASUN → Iruritako gazte musikaria

elika
Dietetika — elikadura

Iñier Andueza Lantz
Itzea, 6 behea • BERA • T. 948 631 283 • elikabera@hotmail.com

- Aholkularitza dietetiko
nutrizona pertsonalizatua
- Gorpuz konposizioaren analisiak:
ura, muskula, gantzak...
- Dietoterapia: hipertentsioa,
hiperkolesterolemia, diabetesa,
arazo digestiboak...
- Kolesterolo eta glukosa
azterketak

ttipi-ttapa Kartelak, fakturak, kartazalak,
bisita txartelak, egutegiak...

948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

inprimitzen ditugu

948 631 218

Kanttonberri 1, BERA

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

KATEA-BIKE

José I. Gonzalez Enguita
pinturak

barukoak eta fatxadak

tel. 666 235 466

Alberto RETEGI
abokatua

948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

okaNea

HARATEGIA / URDAITEGIA
jokatu leku & kafe

Tfno/Fax: 948 630 018

Kanttonberri 12 • BERA

GIZARTEA

GIZARTEA → 'BERDINTASUNAK INDARKERIA EZABATZEN DU' LELOPEAN

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunean ekitaldi ugari antolatu dituzte

Azaroaren 24an autodefentsa ikastaroa egingen da Elizondon

TTIPI-TTAPA

Berdintasunak indarkeria ezabatzen du lelopean, elkarteratzea, dokumental emanaldia, autodefentsa ikastaroa eta antzezlan antolatu dituzte azaro hondar eta abendu hasieran.



helbide elektronikora idatzi beharko dute. Emakumeen aurkako indarkeriaren egunean, azaroaren 25ean, Iruñean egingen den manifestaziora joateko deialdia egin dute. 12:00etan abiatuko dira Gaztelu plazatik. Ekitaldiei amaiera emateko, abenduaren 9an, igandean, Iruritako Damaso Zabalza Bilgunean *Eta Kar mele?* antzezlan ikusteko aukera izanen da 19:00etan.

BAZTAN

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna ospatzen da azaroaren 25ean. Berdintasunak indarkeria ezabatzen du lelopean, ekitaldi desberdinak antolatu ditu Baztango Udalak. Azaroaren 23an, ortzira-lean bortz minutuko el-

karretaratzea egingen dute 12:30ean Balleko Etxearen aitzinean. 21:00etan, Erratzuko lixutegian, genero indarkeriaren inguruko dokumental emanaldia egingen dute.

Azaroaren 24an, la-

runbatean, emakumeendako autodefentsa ikastaroa antolatu dute. 10:00etatik 14:00etara, eraso baten aitzinean nola erantzun, babeserako teknikak... ikasiko dituzte. Emagin dokumentazio eta ikerketarako zentro

feministako kideek ematen duten ikastaroa. Izen emateko azken eguna azaroaren 20a da. Interesa dutenek: Baztango Udaletxeko Berdintasun Zerbitzura, 948 580006 telefonora deitu edo igaston@baztangoudala.eu

BORTZIRIAK

Arantzan, *Amazonas* filma eskainiko dute azaroaren 24an, larunbatean. Lesakan, autodefentsa ikastaroa egingen da azaroaren 17an eta azaroaren 25ean elkarretaratzea egingen da eguerdian. Beran, prostituzioari buruzko mahaingurua egingen da (11. orrian).

Maila guztietako frantses-ikastaroak
Ikastaro estandarra
Ikastaro trinkoak
Online ikastaroak

Itzulpenak: dokumentu administratiboak, gestioak, enpresariak, CV...

Ingeles, aleman eta txinera ikastaroak, heiduentzat, gaztetxoentzat eta haurrentzat. Hizkuntza-ikastaroak atzerrian.

PARLEZ-VOUS FRANÇAIS?

edozein dela zure lanbidea,
zure lan-eremua haunditzen
laguntzen ahal dizu.



www.acornlanguages.com



Koskontako bidea 11. behe LESAKA (Mastegi Futbol-zelaiaren parean)

948 637 135

GIZARTEA → MAHAINGURU INTERESGARRIA

Prostituzioaren inguruko eztabaida izanen da Beralandetan

Lan horretan ari den Montse Neira eta prostituzioaren kontra dagoen Ainhoa Aznarez izanen dira

TTIPI-TTAPA

Prostituzioan jarduten duen eta *Una mala mujer. La prostitución al descubierto* liburua idatziz duen Montse Neirak solasaldia eskainiko du azaroaren 23an, ortziral arratsaldeko 6:00etatik aitzinera Beralandetan. Eztabaidarako ekitaldi aproposa izanen da, prostituzioaren aurka dagoen *Mujeres Progresistas* taldeko Ainhoa Aznarez ere bertan izanen baita eta kontrageginen dio. Ondotik, mahaingurua irekiko da solasaldira hurbiltzen direnekin.

Iñaki Otxoa de Olzaren dokumentala

Iñaki Otxoa de Olza zena protagonista duen *Pura vida* dokumentala ikusgai izanen da azaroaren 17an, larunbatean, Kultur Etxean. 19:00etan emanaldia euskaraz eskainiko da eta 20:30ean gaztele-raz. Sarrera 4 euro kobratuko da eta oso osorik mendizaleak berak sortu zuen SOS Himalaya Fundaziora bideratuko da.

Txotxongilo saioa

Labiaga Ikastolak antolatuta, Taun-Taun taldeak *Batuta* txotxongilo saioa eskainiko du azaroaren 25ean, igandean, Kultur Etxean, 17:30ean hasita. Lau urtetik goitikoei zuzendutako saioa ikusteko 3 euroko sarrera ordaindu beharko da.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Lurraren Eguna giro ederrean ospatu zen

Giro ederrean joan zen 26. Lurraren Eguna. Ehun eskulangileren eta elikadura produktuen postu baino gehiago paratu zen. Gazta lehiaketan 15 ale aurkeztu ziren eta horien artean, Garmendikobordako Sokorro Almandozek irabazi zuen lehen saria, 220 euro eta Zalain jatetxean afaria. Bigarren saria, 100 euro, Arantzako Serorenbordako Margarita Madariagak. Sagardo lehiaketara, berriaz, 18 botil sagardo aurkeztu ziren eta horien artean, Lesakako Lokarinbordako Imanol Lopezek eskuratu zuen 200 euroko lehen saria. 100 euroko bigarren saria ere Lesakara joan zen, Aialdeko Alberto Otxotekok eskuratu baitzuen. Bettoka Elkarteak egindako zozketan 257 zenbakiak irabazi du 5 kilo haragiko saria. Txartelaren jabeak 636520627 telefonora deitu behar du.

zalain
JATETXEA - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
w. www.zalain.com

zalain

F. LANCHAS

Akuboladorea eta berriztatzailea
Parket eta parket flotatzaila
Jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 · BERA

BIDASOA

TERLOAK - PERTSANAK
ESTORRIAK - AUTOMATENAK
MOXETRIKAK - KONPONKETA

T./F. 659 971 442
BERA

carroha
gozategia elandegia

pr de ategia 25 bajo
31780 Bera (Navarra) L948 63 08 99
www.sarobe.net

BRANDONEA, S.L.
FRUTAS DE VINO
FRUTAS DE VINO

BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

TALLERES FRAIN
LESACA - Tel.: 948 637 525
ONGI PASA FERIAK!

TRANSPORTES IRIGOYEN
ONGI PASA FERIAK!
629 592 215 - BIURTUNA OUZOO, 1 - LESACA

IZARRA OKINDEGIA
ONGI PASA FERIAK!
PLAZA ZAHARRA 12-ID 31770 LESACA NAFARROA
TEL: 948 637 855

GOZOTEGIA HAIZEA BOLLERIA
KAFETEGIA
ONGI PASA FERIAK!
T. 948 63 80 36 • Plaza Zaharra, 7 • LESACA

intzuri OPTIKA
BITTIRIA 28, 31770 LESACA
telefonoa 948 627 550
www.intzurioptika.com

BISITA TXARTELAK 2013ko EGUTEGIAK
500 ale **95€**
1000...115... 250...90... 100...75...
* Kartolina berezia 400gr: koloretan BEZ berriz
Kontakatu bidea, 7 LESACA
948 635 458 kultura@ttipi.net

usi
MOTA GUZTIETAKO GARBIKETAK
• Bulegoak, portalak, etxeak, kristalak, garbiketa orokorra eta eraikuntza lanetakoa
• Industria-makinek in egiten dugu
• "Fregado en plano" delakoa
• Produktu profesionalak (guztietan aurkituak, alkalinoak...)
T. 689 305 221 (Oihana) LESACA

LESAKAKO FERIAK

Bortz herrietako azienda onenak sarituko dituzte aurtengoan ere

Lesakako feriak azaroaren 28 eta 29an ospatuko dira eta, ortzeguneko egun handian, Bortzirietako aztiendari onenak sarituko dituzte.

Asteazkenean, Merkatu Eguna izanen da. Bertze urteetan bezala, Irain eskolako jantokian Azoka Titikia izanen dute 11:00etatik 13:00etara. 18:00etan trikitilariak kalejira egingen dute eta, ordu berean, Beti Gaztek antolatutako ajoarriero lehiaketari hasiera

emanen zaio Alondigako estalpean edo, eguraldiak lagunduko balu, Beheko Plaza inguruan. Bikote bakoitzak 2 kilo bakailao ekarri beharko ditu. Elkarrekin 40 euro emanen dizkio bikote bakoitzari. Bikote bakoitzak gas-sukaldea, kazula, zartagina eta behar dituen tresnak eraman beharko ditu. Antolakuntzak olioia, baratxuriak eta gatza jarriko ditu bikote bakoitzarendako. Sariak sailkatutako lehendabiziko 3 bikoteei



KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE


**feria alai eta
pozzgarriak
izan ditzazuela**

Plaza Zaharra • LESACA • 948 63 72 87



emanen zaizkie. Bukatzeko, proba ikustera hurbildu den jendeak, lehiaketan parte hartu dutenek egindakoa dastatu ahal izanen dute. Lagungarri, ardoa eta ogia banatuko da. Azken urteetan, gaztain erreen postua

ere paratzen da eta giro polita sortzen da asteazken arratsean.

Arratsaldean pilota jaialdia

Baina dudarik gabe, ortzeguneko feria eguna izanen da egun handia, Nafarroako Erregeengandik 1499 urtean eskuratutako Bortzirietako feria. Goiz osorako artisau erakusketa antolatu du San Fermin erretiratuaren elkarrekin Beheko Plazan. Azien da lehiaketan iazko sari beretsuak mantenduko dira. Behi-aziendei dagokienez, hiru kategoriatan banatuko dira, holandesak, suitzarrak eta haragitarakoak eta bakoitzean hiru sari banatuko dira eta hobeak aurkeztutakoak ere txapela jasoko du. Zaldi aziendatzat eta ahariatzat ere hiru sari izanen dira, kopuru txikiagokoak. Plazan azienak ikusgai dauden bitartean, 11:00etan aizkolariak ariko dira eta ondotik Sebastian Lizaso eta Amets Arzallus bertsolariak, Bortzirietako bertso eskolak antolatutako saioan.

Plaza inguruan eta Bittiria karrikan hainbertze saltzaile ere izanen dira, beraien produktuak salgai dituztela eta horien inguruan hainbat jende bilduko da, eskaintza onen baten bila.

Bazkalondan, 17:30ean pilota partidak jokatuko dira eta 19:00etan dantzaldia izanen da Plaza Zaharrean Patxi Perezekin, Lesakan aurtengo udazkeneko feriak akautzeko.



ONGI PASA FERETAN!
bortzirietako
INPRENTA - HOPISTOLERA
948 631 521
material gutxiesten inprimatzen duzu
hamar eta 7 aparteko artikulua

IÑAKI
janaridenda
Arretxea, 12
948 638 287

Lesaka - Bera
AUTOESKOLA
Ertegora, 12 • BERA 948 630 652 | Iturribateko plaza, 8 • LESAKA 948 627 520
ESKANTZA BEREZIAK
Gidabaren gutxiak
Gidabaren gutxiak zutenak zutenak

Dia % Lesakako ferietan
otordu gaxoak
prestatzeko
LESACA
Dia % Plaza Berria, 10 • 948 637 335

ITURBENA EGUNERO
IREKITA
(ORTZIRALA ETA
LARUNBATEAN
22:00 ARTETIK)
PIZZAK ETA OGITARTEKOAK
ERAMATEKO
KAFETEGIA • BOLLOAK
OGITARTEKOAK
T 619 188 360
KOSKONTAKO BIDEA, 5
LESACA
ORTZIRALA ETA
LARUNBATEAN
ARRATZALDEZ
PINTXOPOTE
1'90€

www.kattagorria.com
kattagorria
lantzeria martxera
Baserritar jontzien KOLEKZIO BERRIA
ESKANTZA HANDIA
FERIETAN, EGUN OSOA IREKIA
Beheko plaza, 10 • LESACA • 948 627 514

TXARTELAK
Kartulina berezia 400gr. + 2 alde
koloretan + BEZA barne
500 92€
bisita txartel
100 txartel 72€ • 250 txartel 88€
1000 txartel 114€
ttipi-ttapa
Koskontako bidea 7, 1. • LESACA
948 635 458 | kulturkari@ttipi.net
www.ttipi.net | www.kulturkari.com

ZOANSA
SEAT
VW
HYUNDAI
Audi
ZOANSA
Ongi pasa ferietan!
MARKA GUZTIAK KONPONKETA
Banarta, 2 • Alkaleja industrialdea
LESACA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 • Faxa: 948 625 505

LESAKA

LANA → NEGOZIAZIOAK ETEN DITU ENPRESAK

Hiru urtez soldatak ez ditu igoko Arcelorrek

Lan erreformak eskaintzen dion aukera baliatuko du zuzendaritzak lan hitzarmena ez betetzeko

Aitor AROTZENA

Arcelor Mittaleko zuzendaritza eta langileen batzordearen arteko negoziazioak etetea erabaki zuen enpresak azaroaren 5ean. Berriki onartu den Lan Erreforma eskaintzen dion aukeraz baliatuz, indarrean dagoen lan hitzarmena ez du beteko enpresak eta horrek zenbait ondorio ekarriko ditu lantegietan: datozen hiru urteetan ez dela soldatarik igoko eta %6an igoko direla lan orduak. Langileen batzordea ados zegoen 2013an soldata izoztearekin, baina 2014an %1,5eko igoera eta 2015ean %3koa proposatzen zuen, irabazien arabera.

Azaroa bertsoan

“Gure xokotan, azaroa bertsoan” izenburupean, zenbait bertso saio eta ikastaroa antolatu ditu Bortzirietako bertso eskolak, Lesakako Udalaren eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzaz.

Hasteko, azaroaren 3an bertso saioa eskainik zuten Andra Mari egoitzan loar Tainta, Iban Garro, Eneko Fernandez eta Xabi Maiak. Azaroaren 9an, Jon Maiak doinua eta kantarari buruzko ikastaroa eskaini zuen ikastolan.

Aitzinera begira, azaroaren 17an, larunbatarekin, 20:00etan gaztain jatea egingen da Basurde elkarteak, Unai Iturriaga, Iker Zubeldia eta Josu Goikoetxearekin.

Azaroaren 29an, eguerdian, ferietako saioa eskainiko dute plazan Xebaxtian Lizaso eta Amets Arzallusek. Eta abenduan egingen den Bortzirietako



ARGAZKIA: LESAKAKO GAZTE ASANBLADA

Murala paratu du Gazte Asanbladak

Ametsari tira ta tira, gaztetxe herrira eta Mugi hadi gazte leloetan oinarrituz, Gazte Asanbladak gaztetxe baten beharra aldarrikatu nahi izan du eta horretarako apirilean antolatutako Gazte Egunean egindako murala jarri dute. «Herriko gazteak laguntzeaz gain, lan hau ezingo genuke aurrera eraman bertze herritar batzuen laguntzarik izan gabe», adierazi dute. Bertzetik, kultur talde ezberdinez osaturiko auzolan talde bat sortzeko beharra ikusten du asanbladak, talde berri horrekin, herriak behar dituen moldaketak egiteko. Hori aitzinera eramateko, herritar guztien parte hartzea beharrezkoa ikusten dute.

taldekako bertso txapelketaren prestaketetan ere hasiak dira.

Santa Zezilia

Musikarien Eguna dela eta, azaroaren 24an ohiko emanaldia eskainiko dute herriko taldeek, toki ezberdinetan kontzertuak eskainiz.

Joseba Iturbide bakartua

Frantziako poliziak Guardia Zibilarekin egingo dako operazioan Joseba Iturbide herritarra



UTZITAKO ARGAZKIA

Iturbideren askatasuna eskatuz elkarretaratzea egin zen.

atzeman zuen Maconen (Frantzia) urriaren 28an, Izaskun Lesakarekin batera. Lesakarra askatzea eskatuz ba-

tzarreak eta elkarretaratzeak egin ziren. Hau idazterakoan, bakarturik zegoen Iturbide Fleuryko espetxean.

KEDADA ekintzaileen

Berritu-ekin-kudeatu-lehiatu-erabaki-elkarrekin lan egin-partekatu--ilusioa eman -modernizatu-aurrea hartu-finkatu-sostena

2012ko Azaroaren 27a Aste artea

Bidasoako Zerbitzu Zentroa

Lesaka. Alkalaga Industrialea.

Argibideak: 948 62 53 22

XATURETXEA

JATETXEA

T: 948 637 260 - LESAKA

IRU BIDE

Enologia - Auzoak

Barrutia, 3 - Lesaka

Tel: 948 637 127

kulki

umeentzako kultur kirolak

Tel. 948 552 171

www.kulki.org

ZUBIONDO

Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika

BERA NAFARROA

TLP: 948 645 474

ETXALAR

GIZARTEA → SEIGARREN MAILAKOAK ARIKO DIRA TEKNIKARI LANEAN

Xorroxin Irratia eskolan izanen da azaroaren 20, 21 eta 22an

Ordu eta erdiko saioa, 11:15etik 12:45era

Iruñe eta Itsaso

Bertze urte batez Xorroxin irratia izanen da Landagain eskolan. 6. mailakoak arituko dira aurkezle eta teknikari lanetan, baina eskola guztiak parte hartuko du; 3 urtekoetatik hasita 12 urtekoak arte. Eguneko albiste garrantzitsuenak eman, ingelesezko eta euskarazko kantuak kantatu, olerkiak eta bertze hainbat sorpresa.

Kultur egunak

Azaroaren 4an Lesakako abesbatzak Meza ondotik eskaini zuen kontzertuak eman zien akabera udazkeneko kultur egunei. Antolatzaileek erran dutenez, ekitaldi guztiek izan dute arrakasta eta bat aipatzekotan

Andres Iñigok emandako hitzaldi interesagarria izango litzateke.

Turismo gida berria

Azaroaren 5ean, Udalak deituta, turismoarekin zerikusia duten 20 lagun inguruk bilera egin zuten kultur etxean. Herriko turismo gida berria Aste Santurako esku artean izateko lantalde bat osatu zen.

Mus eta partxis txapelketa Larraburuan

Urteroko ohiturari eutsiz Larraburua Jubilatuen Elkarteak bi txapelketa antolatu ditu. Musean 7 bikote ari dira eta partxisen 8. Azaroaren 11n jokatu zizuten lehenengo partidak eta txapelketa hau Eguberriak inguru arte luzatuko da.



ARGAZKIAK: IRUNE ELIZAGOIEN

Gazteentzat ez ezik, haurrendako ekitaldiak ere izanen dira.



ARGAZKIA: MARI LUZ ARIZTEGI

Usoaren Eguna

Urriaren 28an usoaren eguna ospatu zen Larraburua Jubilatuen Elkarteak. 30 lagun inguru bildu ziren bazkaltzera eta giro ederrean pasa zuten arratsaldea.



ARGAZKIA: MARI LUZ ARIZTEGI

Onddo sasoi ona

Urriaren azken aldera eta azaro hasieran nahiko onddo aterri bada ere, seguru ez direla aunitz izan Mari Luz Ariztegik aurkitutakoaren antzekoak. 1.725kg pisatzen zituen argazkiko onddo ederrak.

SUMINISTROS YANCI

35 urteko esperientzia

ITURGINTZA eta BEROKUNTZA

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Baimendutako instalatzaile eta mantentzaileak

- BIOMASA
- AEROTERMIA
- GEOTERMIA
- EGUZKI ENERGIA TERMIKOA

SERVICIO ASISTENCIA TECNICA (S.A.T.)
BANATZAILE OFIZIALA:
NAFARROA, GIPUZKOA, BIZKAIA, ARABA,
LAPURDI, BEHE-NAFARROA, ZUBEROA

Pellet eta egurrezko kalderen erakusketa

Zaldubia Industrialdea, 2 - IRURITA
Tfnoa: 948 580 109

TATANO

energia berriztagarriak

ARANTZA

GIZARTEA → AZAROAREN 1EAN

Jende aunitz bildu zuen Baserritarren Eguna aurten ere

laz bezalaxe, Tuanebordako Marixol Almandozek gazta lehiaketako lehenengo saria eraman zuen

Nerea ALTZURI

Azaroaren 1ean, Baserritarren egun paregabea atera zen. Herriarren eta bertakoak ez diren aldetik, harrera izugarria izan zuen hamazazpigarren edizioak. Ekaitza elkartek antolaturiko goiz pasa polita izan zen eta herriko plaza ingurua eta frontoia azoka bilakatu ziren. Bertakoen lana ikusgai izan zen bertze urte batez. Baserritarren eta herriko ekoizleen produktu, eskulan eta aziendak erakutsiz, 25 postu inguru izan ziren: barazkiak, frutak, gozokiak, zerrikiak, taloak, pintxoak, eskulanak...

Herritarren parte hartze haundia izan zen eta herrian egiten dena ikusteko, probatzeko eta erosteko aukera izan zen. Frontoiaren sarreran, hamar bat ardi eta ahari buru ikusgai izan ziren Auzmantinkoborda eta Ximoneatik eka-riak.

Arantzako zortzigarren gazta lehiaketa ere izan zen eta hamabi gazta aurkeztu ziren. Berrikuntza gisa, aldi honetan, hiru sari eman ziren: Lehenengo saria, Tuanebordako Marisol Almandozen ardi gasnak eraman zuen; bigarrena, Serorinbordako Margari Madariagak, eta hirugarrena, Gaxtelenkobordako Maddi Errandoneak.

Bertako produktuz hornituriko bi zare ere zozketatu ziren: Enkar-na eta Tania Indako-etxea izaba ilobak eraman zituzten bi zareak.

Aurtengo edizioa pasatuta, hurrengo urterako zapore gozoarekin gelditu dira antolatza-



ARGAZKIAK: NEREA ALTZURI


Herritar aunitzek parte hartu du aurtengoan Baserritarren Egunean euren postuak paratuz. Biharamonean, Mentxu eta Koldobike ipuin kontalariak aritu ziren.

leak. Zorionak beraz, Ekaitza elkarteari eta parte hartu duten herritar guziet.

Euskara Batzordeak antolaturiko kultur ekitaldiekin aintzinera segituz, azaroaren 2an, Mentxu eta Koldobike ipuin kontalariak haur eta guraso mordoxka bati lauzpabortz ipuin

kontatu zizkieten basakulan. Ondoren, Herriko Etxeko gorapean txokolate beroa eta pastelak banatu zituzten guraso elkartekoek. Haurrek margotzeko mahaiak ere jarri ziren eta egonaldi polita izan zen. Biharamuneko filme emaldian jende gutti bildu zen eta arratseko

bertso afarian, hogeita-mar afaltiar izan ziren elkartean eta Hodei Barrosok eta Sustrai Kolinak bertsotan afalondoa girotu zuten. Joan den astean, goizutarren txondorri buruzko solasaldia eta bideo emaldia; eta Nafarroaren konkistari buruzko hitzaldiak egitekoak ziren.



HEZKUNTZA → HAUR HEZKUNTZAKOAK BIDE SEINALEAK IKASI ZITUZTEN ESKOLAN

Eskolatik Sunbillara trenbidean barna joan dira LHko ikasleak

40 ikasle eta irakasleak Berrizaunera joateko errepidea bi norabidetan moztu zuen Foruzaingoak

Joxean ORTEGA

Joan den urriaroaren 30ean eskolako Lehen Hezkuntzako ikasle eta irakasleak eskolatik Sunbillara bizikletaz joan ziren. Joan den urtean hasitako ohiturari jarraituz, txirrindaren gainean (baita zeuden putzu guztien gainetik ere) abiatu ziren Igantziako eskolatik. Foru poliziak Berrizaunera doan bidea bi norabideetan moztu zuen bitartean 40 ikasle eta irakasle maldan beheiti abiatu ziren trenbideraino. Handik Sunbillara joan, bertan gosalduta, jolastu eta bazkaldu eta buelta Berrizaunera. Han, iaz bezala, gurasoak za-



ARGAZKIA: JOXEAN ORTEGA

Ikasle eta irakasleak Sunbillako plazan "helmugaratu" ondotik.

in zirelarik furgoneta, kamioneta eta remolketan bizikletak herrira ekarri zituzten. Bitartean Haur Hezkuntzako ikasleek eskolan zirkuito bat bizikletaz egin zuten, semaforoa, isunak eta guzti: batzuk karneta atera gabe eta dagoe-

neko puntuak galduak... Ekintza hagitz polita izan zen eta iaz baino hobe atera omen zen. Urtero errepikatzeak asmoa dute.

Euskaltegia bigarren urtez

Aurten ere bigarren ur-

tez, Euskaltegia Igantzin izanen dugu. Lau lagun hasi dira beraien euskara maila hobetzen gure herrian. Lan gogorra izanen da, baina beti bezala, emaitzak ere, egindako lanaren tamainakoak izanen dira. Animo beraz!

LANA

1.286 lagun zeuden lanik gabe urri hondarrean

TTIPI-TTAPA

Irail hondarrean baino 44 langabetu gehiago zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanak urriaren 31n, 1.286 zehazki. Bi hilabetetan 96 langabetu gehiago ditu eskualdeak eta inoiz izan duen daturik kaxkarrena, 1.300 langabetuetatik hurbil. Nafarroan banaz bertze %2,65 igo da langabezia urrian eta gurean oraindik gehiago, % 3,54.

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 554 lagun daude langabezian, irailean baino 30 gehiago. Adin tarte horretako emakumeen artean ere 572tik 578ra igo da langabetu kopurua urrian. 25 urtez beheitiko gizasemeen artean, 92tik 94ra igo da langabetu kopurua eta adin tarte horretako emakumeen artean ere 54tik 60ra pasatu dira lanik gabe daudenak.

Zerbitzuen arloak segitzen du langabezia gehien izaten eta urrian igoera nabarmenena izan duen arloa izan da, 791tik 823ra igo baita langabetu kopurua. Industria arloan, aldiz, 203tik 197ra jaitsi da langabezian dauden kopurua. Eraikitzean, 161etik 177ra igo da langabetu kopurua. Nekazaritzan lau langabetu gehiago daude, 29, eta aitzinean lanik egin ez dutenen artean 60 lagun daude langabezian, irail hondarrean baino 2 guttiago.



GAZTE OIHUA

GAZARTEA → ALTxANESKATXA TALDE FEMINISTAREKIN

«Oso positiboak gara gure geroari begira»

GAZTE OIHUA

Gazteak eta emakumeak. Talde berria izanagatik, Iparraldeko neska txak gogotsu dabilta beren lanetan. Iduzki Soubelet, Elorri Arin eta Aitziber Zapirain Altxaneskatxa gazte talde feministako kide dira. Gazte Oihuak haiekin hitz egiteko aukera izan du.

Norkosatzen duzue Altxaneskatxa?

Lapurdikiko emazte gazte talde bat gira. Gehienak gure artean ezagutzen dira, lagunak edota militante kideak girelako. Adinari dagokionez, batzuetan 25 urte ingurukoa da, baina 17 urtetik 35 urteradoda. Momentukoz, Altxaneskatxako kideak Lapurdi kostaldekoak dira, nahiz eta gure helburuetako bat Iparraldea saretea izan.

Nola sortu zenuten taldea? Zergatik?

Lagun taldeen artean, emazteen arazoez askotan hitz egiten ginuela konturatu ginen eta horren inguruan lanketa berezia egiteko beharra sentitu genuen. Gure sorre-

ra kontestu historiko-geografiko batean kokatu behar dugu. Iparraldean feminismoaren lanketa 80. hamarkadan hasi zen Patxa mugimendurekin, baina urteak joan ahala bere inaktibazioa gailendu egin da. Hegoaldeari dagokionez, aurtan Bilgune Feministak 10 urte ospatu ditu, eta gutako bost topaketetara hurbildu egin ginen. Handik formakuntza eta babes handia sentitu genuen, gure errealitatean lan egiteko indar berrituta itzuliz. Gure taldea osatzen hasi ginenean, hau da 2011ko neguan, lehen hurbilketak egin genituen Bilgunearekin.

Nola lan egiten duzue? Hilabetero behin ikusten dira, igandez. Igandek normalean tristeak izaten dira, lasaiak, horretarako egun hori hautatu dugu gure artean kafesne baten inguruan gure lanketa eta taldetxoak aitzina eramateko. Hurbiltzen ginen artean batek idazkari papera hartzen du, ondoren akta neskatxa guztiei bidaltzeko.



ARGAZKIA: GAZTE OIHUA

Altxaneskatxa taldekoek diotenez, «gizarte patriarkalaren normak oso ongi barneratuak ditugu».

Zer egin duzue orain arte?

Sortu berriak girenez, hasierako ezagutza fase batean murgildu gira, hau da bakoitzak duen ezagutza eta esperientziak bata besteari elkartrukatzuz. Antzerki tailer arrakastatsu bat antolatu genuen, neska guztien partehartze eta umore ezin hobearekin. Sextabaida bat ere aitzina eraman genuen krakada baten inguruan. Orain arte egin ditugun ekimenetan gure arteko ongizatea eta errespetua zaintzeko arduratu dugu.

Nola ikusten duzue egoera?

Oso positiboak gira gure geroari begira. Ideia eta proiektu desberdin asko ditugu gure esku artean. Baina errealistak ere

izan behar gira, eta denborarekin hartu behar ditugu gure nahiak.

Eskualdeko gazteek zer kontzientzia maila dute gai hauen inguruan?

Gure artean hitz egiten dugunean, ohar gaitzezke, gizarte patriarkalaren normak oso ongi barneratuak ditugula. Lanketa berezirik ez da egiten gaitzen inguruan, baina orokorrean ez du gazteria ukitzen bakarrik.

Laister azaroaren 25a...

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunari begira, Altxaneskatxak Azkaingo gaztetxean filma bat emango du, ondoren eztabaida gune bat proposatuz. Bestalde, Emazteek Diote Hazparneko taldeak 10etan elkarretaratze batera deia egi-

ten duela gogorarazi nahi dugu.

Aitzinera begira zer asmo?

Gure taldea sortu berria denez, lehenik indartzeko asmoa dugu. Garrantzitsua ikusten dugu gure buruak elikatzen joatea, bai indibidualki baina baita ere kolektiboki, gizarte patriarkal hegemonikoaren aurrean borrokatzen ibiltzeko. Bestalde, nahiko genuke gu bezalako taldeak garatzea, azken batean feminismoa garatzen joateko.

Zer erranen zeniekete eskualdeko gazteei?

Izan neska ala mutil, lesbiana ala gay, bakoitzak astindu dezagun gure garuna gizarte orekatu eta parekideagoa osatzen hasteko! Gora borroka feministak!!

Proiektu honek badu etorkizuna

Elkarlanean gai gara eusteko.

Ekarpen asko jasotzen ari gara, baina zurea ere behar dugu.

Oraindik badugu zeregina BERRIA komunitatea indartzen.

BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko

www.berria.info/berrialaguna

izan zaitez **berrialaguna**

SUNBILLA

ERREPIDEAK → N-121-A

Bidegurutzea moldatzeko proiektua onartu dute baina data zehaztu gabe

3,6 milioiko aurrekontua izanen luke eta gaur egungo errepide azpitik pasabidea egingen litzateke

Maidier PETRIRENA

Nafarroako Gobernuak onartu du N-121-A errepideko Sunbilla-ko bidegurutzea moldatzeko proiektua. Iruñera aldeko sarbidean egingen liratekeen lanek 3,6 milioi euroko aurrekontua izanen dute eta gaur egungo errepidea pixko bat altxatuko litzateke eta azpitik pasabidea egingen litzateke. Hala ere, proiektua onartu aurretik, ez du data zehatzik, krisiaren eraginez Gobernuak ez baitu dirurik eta Luis Zarzaluqui Sustapen Departamen-

tuko kontseilariak ez baitu Sunbillakoa lehen-tasuneko lanen artean sartu. Traktoreen sartu-irteerak ere zehaztu beharko lirateke, gaur egungo araudiak ez baitu nekazaritza ibilgailuak lehen mailako errepideen azpitik pasatzen uzten.

Tristea da horrela ibili behar izatea, baina bidegurutze honetan heriotzak izan dira, hain zuzen ere 2005ean haurdun zegoen neska bat hil egin zen eta 2008an berriz Baztanesa autobusa eta kamioi baten artean izan zen talkarengatik, 8 zauritu izan ziren, bat oso larri.

Horregatik, mobilizazioak egitea erabaki zuten udalak 2010eko ekainetik aitzinera, sarrera duin batzuk eskatuz. Herritarrek ere parte hartu zuten errepide mozketetan. Ekaina eta



ARTXIBOKO ARGAZKIA

N-121-A errepidetik herrira sarbide duinak eskatuz mobilizazioak egin zituzten sunbildarrek 2010. urtean. Orain, proiektua onartu du Nafarroako Gobernuak.

uztailean ordu laurdenekoak izan ziren eta beti ere norabide bakarra moztuz, abuztuan eta irailean ordu erdikoa. Nafarroako Gobernuak ez zuen errepidea erabat mozteko baime-rik eman, hori egiteak kargu publikoen inabilitazioa ere ekar zezakeelako. IAT-aren inaugurazioa zela eta 2010eko irailaren 7an sunbildarrak bertaratzeko erabaki zuten, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuako presidente etorri zelako, Begoña Sanzberro, Landa Garapen eta Ingurumen Kontseilariak lagunduta. Miguel Sanz-ek aipatu zien ez zela bizilagunen kontrako eraba-

kirik hartuko eta bidegurutzearen soluzioa hurrengo Errepideen planean emanen zela. Horren ondorioz udalak erabaki zuen mobilizazio gehiago ez egitea.

Garaigarri eta Donibane karriketan obrak

Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak toki azpiegiturak hobetzeko zenbait inbertsio onartu ditu, 2009-2012 Toki Inbertsio Planaren barruan. Horien artean daude Garaigarri karrikako 1 eta 2an eta Donibane karrikan egin beharre-

ko sareen berritzea eta zolaberritze lanak. 907.527 euroko inbertsioa onartu da eta Nafarroako Gobernuak 564.837 euro paratuko ditu.

Ulibeltzak mendi taldearen sasoi bukaera

Ulibeltzak Mendi Taldeak akitu ditu aurten go ateraldiak eta hori ospatzeko afaria egingen dute azaroaren 24an Ulibeltzak Elkarteak. Apuntatzeko aukera dago Iturburu eta Fonda ostatueta baita 690117651 deituta ere. Ea jendea animatzen den, denboraldia behar bezala akitzeko.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ETXARTE bitxi-denda




%10^{eko} DESKONTUA

NARBARTE

NATURA → ERLEZAINEN ARTEAN KEZKA

Bisitariak izan ditugu Errezkil zubiaren gainean

Oraindik Asiako liztorraren kabiaren errestoak ageri dira



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Asiako liztorraren kabia, Errezkil zubiaren gainean.

Martin BERTIZ

Duela egun batzuk arte Errezkil zubian burua altxatuz gero bixitari batzuk ikus zitezkeen, zuhaitzaren goikaldera begiratu eta kabi eder bat ikus zitezkeen, Asiako liztorrak ziren. Txinatik etorritako liztor hauek ikustea ohikoa bihurtu zaigu gure inguru-

an. Diotenez, hauetako hogeita hamar liztorrek hiru ordu baino gutxiago behar dute 30.000 erle hiltzeko. Beraz ez da harritzekoa Nafarroko erlezainen artean dagoen kezka. Liztor kabi hauek tamaina txikia izanez gero nahikoa da eskopetaz tirokatzea

kabia txikitzeko. Baina kabiak tamaina handi-koak badira kabi barruan 500 bat liztor dau-denez tirokatu ezkerotxikitu beharrean hedatu egiten dira.

Gaur egun kabiaren erresto batzuk ageri dira oraindik, baina ez da liztorrik ageri.

San Andresak abenduaren 1ean

Garai batean herriko bestak San Andresetan ospatzen ziren, baina abuztura San Felipetara pasa egin ziren.

Herriko patroiar seinaile egiten zaio oraindik eta aurtan ez da gutxiago izanen. Data erabakita dago; abenduaren 1ean, larunbatean, Herriko Ostatuan bazkari eder bat egingen da. Ostatuan eta Ester janari dendan hartu behar dira txartelak. Agerralde musikariak alaituko du bazkalondoa.

ADMINISTRAZIOA

'Moderna' zigilua jaso dute zenbait Mankomunitate eta udalek

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 43 Moderna zigilu eta 6 aipamen berezi eman dizkie irabazi-asmorik gabeko 46 toki-erakundek sustatutako interes orokor edo sozialeko proiektuei, eta haiek gauzatzeko lanik gabe zeuden pertsonak kontratatu dituzte. Eskualdean, Zubieta, Bera eta Doneztebeko Udalen proiektuak eta Malerre-kako Zerbitzuen Mankomunitatekoa izan dira zigilua jaso zutenak, urriaren 26ko ekitaldi instituzionalean.

musika berexia eta giro bestazalea
Elizondoⁿ, BAZTAN^{en}

garagardolegia
larunbatero,
arratsaldeko Betatik
aurrera

azaroak 24 larunbata

OIHAN VEGA

SARRERA 6

goizeko 02:00etatik aurrera

abenduak 1 larunbata

ZOPILOTES TXIRRIAOS

goizeko 01:00etatik aurrera

SARRERA 9

abenduak 15 larunbata

Askatu + BETAGARRI

SARRERA aurretik 9

11 SARRERA takilan

goizeko 00:00etatik aurrera

abenduak 25 asteartea

TXUTXIN IBÁÑEZ

goizeko 01:00etatik aurrera

SARRERA 6

KULTURA → ERREKA ETA MENDAUUR GURASO ELKARTEAK LANEAN

Antzerkia, zinea, ipuinak eta tailerrak antolatu dituzte neguko ludotekan

Larunbatean Xagu antzerki taldearen *Agur Manhattan* antzezlan ikusgai izanen da zinean

TTIPI-TTAPA

Erreka eta Mendaur guraso elkarteek, 2012-2013 ikasturtean, neguko ludoteka martxan jarri dute, hainbat ekimen landuz: eskulanak, ipuingintza, antzerkia, birziklaia tailerrak, jostailuen merkatua... Azaroaren 7an abiatu zen, zinean egindako birziklapen tailerrarekin. Azaroaren 17an, larunbat arratsaldeko 6:00etan, *Agur Manhattan* antzezlan eskainiko du Leitzako Xagu antzerki taldeak zinean, gazte eta helduendako. Azaroaren 18an, igande, zine saioekin segituz, *Kung Fu Panda 2* filma ikusgai izanen da 16:30ean eta *Men in Black 3* 18:30ean.



ARGAZKIA: MALERREKAKO GAZTE ASANBLADA

Ernadi Rock jaialdi arrakastatsua aurten ere

Bigarren urtez segidan Ernadi rock jaialdia ospatu zen azaroaren 3an. Batzuen harridurarako eta bertzeen gozamenarako herriari ezohiko bizitza eman ondotik gaueko kontzertuei ekin zioten. Malerrekako Gazte Asanbladako kideek diotenez, eta lasai aski erran dezakete, «Kaskezurren rock and roll doinuekin, Afurekin gerriak astinduz, Bide bakarraren orruekin buruei eraginez edo Garraixekin zintzurak urratuz lokartzeko tarterik ez zela egon». Beraz, inoiz baino ernatuago eta lanerako gogotsuago daudela uzten ditu aurtengo Ernadi rock-ek Malerrekako gazteak: «Datorren urtean gehiago eta hobe!!!».

Azaroaren 21ean, asteazkenarekin, Mankomunitatearekin batera antolatuta, Iñaki Zubeldia ipuin kontalaria ariko da, 17:00etan Haur Hezkuntzakoentzat eta 18:00etan Lehen Hezkuntzakoentzat. Azaroaren 28an, berriz ere bir-

ziklapen tailerra izanen da zinean 17:00etan.

Txirrindularitza indartzeko bilera

Nafarroako Txirrindularitza Federazioko zuzendaritza berriak kirol hau Bidasoaldean berrindartzeko (probak

antolatuz, txirrindularitza eskolak sortuz...) bilera batera deitu ditu eskualdeko klubak eta interesatuak dauden guztiak. Bilera azaroaren 16an, ortzirala, arratsaldeko 7:00etan izanen da Erreka elkartearen egoitzan.

ERREKA

Eguberrietako saskirako boletoak salgai daude

TTIPI-TTAPA

Erreka Kirol Elkartearen Eguberriko saskiaren boletoak dagoeneko salgai daude herriko komertzioetan. Port Aventura asteburu bat bi pertsonentzat, ordenagailua (mahaikoa edo portatila, aukeratzeko), mendi bizikleta, telebista DVDrekin, Elgorriagako Balnearioan bi pertsonentzako bonoa bazkaria barne, Segway-en ibilaldia Leurtza Abenturaren eskutik bi pertsonentzat, ardoa, urdaiazpikoa, likoreak... eta berritasun bezala 9"-ko Tablet bat izanen du elkartearen jarduerak finantzatzeko hagitz garrantzitsua den saskiak. Zozketa abenduaren 22an egingen da elkartearen egoitzan, 13:00etan.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea

- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESABA: Bittirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

**Lizun**
GAZTANDEGIA

Sunbilla - Tel: 948 450 862



Gure Haragia
Nuestra Carne

ELGORRIAGA

TXAPELKETAK → AGURAINEN JOKATUKO DA FINALA 2013KO MARTXOAN

Jexus Mari eta Fran sailkatu dira Euskal Herriko mus txapelketako zonaldeko faserako

Uxue eta Rajari irabazi zioten finalean

Mattin LARRALDE

Herriko ostatuan Herriko mus txapelketan sailkatzeko partidak jokatu ziren. Denetara sei bikote aritu ziren eta hauen artean Jexus Mari eta Fran izandu ziren irabazleak. Finala Uxue eta Rajaren kontra jokatu zuten. Irabazleak zonaldeko partidak jokatzeko sailkatu dira. Zorionak bikote honi eta ea bide luzea egiten duten. Nork daki, beharbada Agurainen jokatu den finalean ikusiko ditugu.

Euskal Tonbola

Euskal Tonbolako sari potolo bat aterit zen

Herriko Ostatuan, tableta. Itsasori tokatu zaio baina sari eder gehiago ekarri dituzte berriro. Azkenean, gure hizkuntza bultzatzeko laguntza bat da.

Pilates

Negu airea hartzen ari gara lehen hotz hauekin eta jendea etxean gustura gelditzen da. Baina aurten pilates klaseak jarri dituzte herrian eta arrakasta handiarekin, hiru talde osatu direlako.

Zorroiloak

Zorroilo elkarteak urteko besta ospatuko dute azaroaren 24an. Goizez ekitaldi batzuk egingen dira, eguerdian bazkaria eta arratsaldean sorpresaren bat izaten ahal da.



ARGAZKIAK: MATTIN LARRALDE
Goitian mus txapelketako finalistak eta behegian Izaskun, Euskal Tonbolako tabletarekin. Ondoan, pilates-gela.

DONAMARIA

NATURA

Uso gutti, baina ondo andana udazken honetan

Ehiztariak ez daude kontent eta zeruari baino gehiago lurrari begira

Izaskun GOÑI TELLETXE

Ehiza garaia aspal-dixko hasi zen arren, oraindik ez ditugu uso

gehiegirik ikusi gure baxter hauetan. Aldiz, gure mendietan, onddo andana ateratzen ari da eta horren erakusgarri argazkian ageri den Dionisio Goñi.

Yoga ikastaroa

Yoga ikastaroak hasi dira ematen astelehenero. Jende pila

apuntatu da ikastarora eta oso gustora daude.

Nahi duenak, astelehenetan 20:00etan izaten den ikastarora agertu, proba egin eta gustatuz gero apuntatu. Animatu zaitetzte!!!!

ARGAZKIA: IZASKUN GOÑI T.
Dionisio Goñi, gustora bere onddo beltzekin.



HEZKUNTZA → HAUR HEZKUNTZAKO 3. MAILA ETA LEHEN HEZKUNTZAKO 1. MAILAN

‘Medikuak’ proiektua landuko dute eskolako 5 eta 6 urteko ikasleek

Tentsioa eta bihotz taupadak neurtzeko aukera eskainiko dute Pulunpa kontsultan

Arkaitz MINDEGIA

Pulunpa Eskola Publikoko Haur Hezkuntzako 3. maila (5 urte) eta Lehen Zikloko lehenengo mailako (6 urte) ikasleek proiektu berri bat egin dute ikasturte honetan. Aurtengo proiektuaren izena *Medikuak* da, beraz beraien gelara Pulunpa kontsulta bihurtu dute, *Medikuen txokoa* sortuz.

Bere atentzioa ingurura zabaldu nahian tentsioa eta bihotz tau-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

5 eta 6 urteko neska-mutikoeek kontsulta pasatuko dute beraien gelan.

padak neurtzeko aukera ematen dute mediku-erizain ttikiek. Horretarako, aldez aurre-

tik ordua eskatu behar da 948 451554 telefonan eta 5-6 urtetako medikuaz galdetu edo-

ta beraien gelara joan beharko da ordua eskatzera eta bertan artatua izatera.

GIZARTEA

Hiri Hondakinen azaroko zozketa egin da

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak eta Malerreka Mankomunitateak etxe banatutako egutegiekin, azaroko zozketa egin da eta hauxe da zenbaki sariduna: 5.429. Saria, zonaldeko produktuekin osatutako loteria izanen da. Aipatu, bertzalde, urrian ere ez zela zenbaki sariduna agertu. Hilabete hondarrean bukatu zen epea, eta beraz, orain ezin da saria eskatu. Azaroko zozketaren saridunak hilabete bukatu arteko epea izanen du saria eskuratzeko. Horretarako Bortzirietako Mankomunitatearekin beharko du: 948 635254.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

ZUBIETA

EMIGRAZIOA → 1964TIK BIZI DA ESTATU BATUETAN

Hilabete eman du herrian Etxeberriko Juan Fermin Indakoetxeak

Fermin ETXEKOLONEA

1964ko Errege Eguanean joan zen Ameriketara lehen aldiz Etxeberriko Juan Fermin Indakoetxea Indakoetxea. Gaur egun 75 urte ditu eta hilabete bat eman du sorterrian, Dolores arrebaren eta Miguel Arregi koinaduaren Exkinako Etxean eta berri iztuli da Estatu Batuetara, Coloradora.

Ameriketara joan eta lehenbiziko *borreguero* aritu zen hiru urtez, guk artzain deitzen duguna, 2.000 ardirekin. Gero, beste hiru urte kanpe-ro aritu zen, kotxearen karneta atera eta jana-ria partitzen artzaiei eta aziendei. Sei urte pasatuta hango residentzia-ko paperak egin eta hil-

tegi batean aritu zen, 62 urterekin jubilatatu bitartean. «Hiltegi hartan 5.000 behi hiltzen genituen egunero», dio.

Azkeneko aldiz due-la hameka urte etorri zen. Aisa laketu omen du hilabete honetan, baina aldaketak somatu ditu: «Etxe berri as-ko ikusi ditut, herria as-ko handitu da, baina al-di berean baserri gehie-nak hutsak ikusi ditut». Erabat bizitzera etorri-ko litzatekeen galdetu-ta, ezezkoan dago Ju-an Fermin. Izan ere, fa-milia badu han, emaztea eta lau alaba. Hauek ez dakite euskaraz, baina berak ongi mantentzen du. «Bai, Aliko Juani-korena zubietarra ere herri berean bizi da eta



ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

Juan Fermin Indakoetxea erdian, Dolores arreba eta Miguel Arregi koinadurekin.

tarteka berekin eta Sun-billako Patxikito eta Joxemariarekin elkartu eta musean aritzen ga-ra eta elkarrekin euska-raz solasten dugu».

Txistularia da Juan Fermin eta aurreko al-dian, herriko festetan txistua eta danborra jo zuen plazan, ordubete-ko zortzikoa, Migelte-neko Ferminen lagun-tzarekin. Errandoneko Lizartzako bordan Patxi-kurekin ikasi zuen txis-

tua igande arratsalde-tan. Tanborra soldadus-kan ikasi zuen.

Malerreka kantuz

Azaroaren 3an Ma-lerreka Kantuz egin zen. Koadrila ibili zen, baita kanpoko herrietatik etorritakoak ere, 40 bat lagun. Eguerdian giro polita jarri zuten eta ge-ro talo jatea egin zuten, Lurdes Elizalde eta Ani-ta Hualdek prestatuak borondate osoarekin.

Zubietar Guajiroak Imanolen omenez

Txas Esparza eta Edorta Muruak EITBko lehiaketa batean parte hartzen dute, Imanol Larzabalen omenez. Bertsio lehiaketa da. Zu-bietar Guajiroak dute taldearen izena. Urriar-en 31n aritu ziren eta azaroaren 11n jokatzeko-a zen finalera pasatu dira. Lugaritz Kultur Etxean aritzekoak ziren joan den igandean.

MERCHÉ
MODA HOMBRE

Giovani Valdi • Sandro Sellini • Caramelo gala
Serapio Mugika, 11 • 20302 IRUN • 943 612 626
www.capeleltimercheirun.com

EZKURRA

EHIZA → USO DENBORALDI GORABEHERATSUA

Ezkurraoen haserrea, Eratsungoen gozamina

Onddoak ere ugari hartu dituzte Eratsunen

Fernando ETXEBERRIA

Ezkurraoen haserrea, Eratsungoen gozamina: orain arteko uso ehiza denboraldia oso txarra izan dela diote Ezkurraoen ehiztari gehienek. Pieza gutxi ehizatu dituztela diote. Eratsungoak berri, gustura daude aurten go denboraldiak eman duenarekin, 250 pieza baino gehiago ehizatu baitituzte. Egun bakar batean 150 uso ehizatu zituzten. Hainbeste-koa omen zen uso pasea, eskopetak karga-

tzeko denbora nahikorik ere ez zutela ehiztariak. Onddoak ere Eratsun aldean ugari. Ezkurra aldiz, onddoak ez baina gibelurdira franko bildu dira.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Mariezkurrena Hernandorenatarak urriaren 28an bildu ziren Barrankan.

Mariezkurrena Hernandorena familiaren urteroko bilera

Urteroko ohiturarekin segituz, Mariezkurrena Hernandorenatarrek bazkaria egin zuten. Urriaren 28an Gipuzkoatik etorritako familiako kide ugari bildu ziren Barranka jatetxean. Familia ugaria dira eta gerraren eraginez

bizirauteko herritik ihes egin beharra izan zuten aunitzek. Estatu Espainiar guztian zehar banatuta daude familiako kideak: Gipuzkoan, Santanderren, Zaragozan, Andaluzian... besteak beste. Gehiengo oporretan etorri ohi da Ezkurra, familiako kideekin elkartzeko eta bide batez, oinordekoak beraien sustraiak ahaztu ez ditzaten.

Loteria

Arkupeak elkartearen Loteria Barranka Ostatuan eskuratu daiteke 10 euroren truke. Bertzalde, elkartearen gastuei aurre egiteko, 'Zuk aukeratu, zuk erabaki' ekimenean parte hartzekoak dira. Horregatik, elkartearen ordezkariak bazkideekin harremanetan jarriko dira, proiektuaren alde egin dezaten.

ARANO

OSPAKIZUNAK → 26 URTE DARAMAZKITE ELKARTZEN

Ohiturari eutsiz, emakumeen afaria egin zen urriko azken larunbatean

Musean eta kartetan aritu ziren gero

Ainhoa ANSA

Urriko azken larunbatean, ordu aldaketa-ekin batera, herriko emakumeek egiteko ohitura duten afari bat izan zuten herriko elkartearen.

Beti bezala Mari Esterrek prestatu zuen afaria eta menua ere urterokoa izan zuten. Onttoz egindako krepak,



ARGAZKIA: AINHOA ANSA

Emakumeek gustura afaldu zuten elkartearen.

oilaskoa txanpainaren laguntzarekin eta tarta

postreko. Jarraian, kartak mahai gainera

atera eta musean eta beste karta jokuetan aritu ziren. Musean Auroak eta Marijok irabazi zieten finalean aukari izan zituzten Ixiar eta Evari.

26 urte inguru darazmatzatela kalkulatu zuten noiztik elkartzeko ote ziren norbaitek galdetu zuenena, eta beste horrenbeste ere gutxienez segi dezatela, aizue! Hurrengo urtean berri!

1.750 gramoko onto ikusgarria

Jon Anderrek, onttozale on bezala, ez digu esan noiz ezta non aurkitu duen onto ikusgarri hau! Nola bestela? Dakiguna 1.750 gramo pisatu dituela! Aze sustoa hartuko zuten horrelako zapela hankapean ikusitakoan!



LEITZA

OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 17AN

Garagardo Pestak hamargarren urtea egingo du Torrean

Dastaketa, bazkaria eta gauean kontzertua izanen dira

JM BARRIOLA

Azaroak 17an X. garagardo pesta izanen da Torrean. Eguerdiko 14:00etan hasiko da garagardo ezberdinen dastaketa eta bazkariaren menua haxe izanen da: saltxitxa alemaniarak, patata purearekin, txekor saiheskia letxuarekin, limoi eta cava sorbetea, kafea eta kopa. 21:00etan berriz saltxitxa pintxoak banatuko dira. Txartelak Torrean eskuratu daitezke 28 eurotan, 16a baino lehen. Ondoren gauean kontzertua *Nats & Wats* taldearekin.

Aurreraren batzarra

Aurrera Kirol Elkar-teak zuzendaritza taldea berritzeko asmoa du azaroaren 23an, ostiral arratsaldeko 8:00etan lehen deialdian eta 8:15ean bigarren eginen duen ohiko batzarrean. Batzordean parte hartzeko interesa dutenek eskaera azaroaren 17a baino lehen egin beharko dute egoitzan edo aurretike@hotmail.com helbide elektronikoan. Hel du den urteari begira kirol koordinatzaile baten beharra ere somatu dute Aurrerako arduradunek eta kargu hau bete dutenek ere proposamena bidal dezakete.

Honetaz gain, 2011tik 2012ko irailera bitarteko kontuen onarpena eginen dute bazkideek. Elkartetik jakinarazi dutenez, urte hau 4.000 euro inguruko superabitarekin itxi da, 69.029,50 euroko gastuak eta 73.004,46 euroko diru sarrerekin.

Aurrekontu partehartzaileak

Kontu partehartzaileak bultzatu nahian urriaren 26an izan zen lehen informazio saioa. Alkateak azaldu zuen zer diren aurrekontuak eta nola osatzen diren, hurrengo urteko aurreikuspenak... Oso ariketa interesgarria izan zen. Hurrengo saioa azaroaren 9an egitekoa zen herriko eragileekin eta azaroaren 16an izango da proposamenak jasotzeko eguna.

Azaroaren 25eko ekitaldiak

Azaroaren 25ean Emakumeen aurkako indarkeriaren ezabepenerako Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta zenbait ekitaldi antolatu dira Gizarte Zerbitzu-en Mankomunitatetik. Azaroaren 24an, 10:00-etaik 13:00ak arte Ahal-duntze tailer bat egongo da emakumeei zuzendutakoa. Eskolako gimnasioan izango da, eta izena emateko Maimurren egin beharko dute. Teresa Martinezek emango du tailerra eta ahalduntzea (empoderamiento) eta bioener-



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Mikologialdia arrakastatsua aurten ere

Aurtengo mikologialdia oso ongi joan zen. Aste guztian ostatueta dastatzeko pintxoak banatu zituzten iluntzean. Asteburuan perretxikoak bildu zituzten zale eta umeek, nahiz eta euri asko bota zuen. Larunbat arratsaldean 130 xixe sailkatzea lortu zuten, igandean karrapean erakutsiz, herriar batzuk egindako argazkiekin batera. Landaberri tabernak prestatutako onddoen pintxoak eskaini ziren plazan, eta beti bezala jende aldetik arrakastatsua izan zen.

getika landuko da. Bessetik, hitzaldi bat eman go dute Miren Condek eta Amaia Zubietak, Indarkeria Sexistaren aurkako Plataformak egin duen Sexu Indarkeriarekin amaitzeko beharrezkoak diren neurri integralen proposamena ezagutzera emanez. Eguna eta ordua zehaztu gabe dute oraindik.

Baztarlako bidea konpontzeko eskaera

Baztarla aldera don bidea aspaldidanik egoera txarrean dago. Bide hau Nafarroko Gobernuo Herrilan Departamentuari utzi zion herriak 1986an, eta berridagokio honen konpontketak eta mantentze lanak. Bidearen egoera txarra zela eta Udalak konpontzeko eskaera luzatu zion 2008an bi alditan. Geroritik nabarmena da ez duela lan hori behar bezala egiten eta bidea gero eta okerrago dago. Orain berriz egin du Udalak konpontzeko

eskaera, bide hau abeltzainek erabiltzen dutelako Baztarlako lurretara joateko.

ETAP eta Amazabaleko lanak martxan

Azken batzarrean, bileran garrantzitsu lehia-ketara atera ditu Udalak. ETAPeko lanen bidez urak tratatzeko sistema berria ezarriko da. Orain arte urak deposituan tratatzen ziren, baina Europako legedira egokitzeko ura deposituan sartu baino lehen tratatu beharko da. Bestalde, Amazabalazoko saneamendu eta zolaberritzeko lanak ere martxan jarri dira.

Liztor asiarraren kontra

Uda honetan nabarmen hazi da liztor asiarraren presentzia herrian. Adituek diotenez bertako erleei kalte nabarmena eragiten diete, erlezaintza eta ondorioz landareen eta fruitu-ernalkuntza, arriskuan jarritik. Hau ikusirik

Udalak neurri eraginkorak hartzeko eskatu dio Nafarroko Gobernuo Ingurumen Departamentuari.

Barrura begiratzeko leihoak zinean

Barrura begiratzeko leihoak pelikula ikusi ahalgo da zinean, azaroaren 16an, 22:30ean eta 18an, 19:30ean. Igandeko saioan Enara Goikoetxea zuzendaritako bat izango da. Pelikula honek bost dokumental biltzen ditu, bost zuzendarik eginak eta bost istorio azalduz.

Amurizaren hitzaldia azaroaren 28an

Azaroaren 28an 19:30 aldera, liburutegian, *Zazpi ebidentzia birjaotzarako* Xabier Amurizaren azkeneko liburuaran aurkezpene eginen da Leitza. Euskararen erabilerak sortzen dituen zailtasunei inguruko hausnarketak eta proposamenak azaltzen ditu.

HEZKUNTZA → BIDAI ETA ATERALDIAK

Hara eta hona dabiltza eskolako umeak udazken honetan

Donostian San Telmo eta Zientziaren Museoak ikusi zituzten eta herrian gaztain biltzera atera ziren

Juana Mari SAIZAR

Eskolako umeak hara eta hona dabiltza udazken honetan. Donostiara irtenaldia egin zuten, San Telmo museora lehenik, eta gosaldu ondoren Eureka zientziaren museoan izan ziren. Bukatzeko planetariora ere joan ziren, eta han Esne Bidea filma ikusi ahal izan zu-

ten. Beste arratsalde batean eskolatik gaztain biltzera joan ziren guraso eta guzti, udazkena landuz eta eskolako orduetatik at Guraso Elkartek antolatzen duen urteroko gaztain biltzean ere izan ziren guraso eta haurrak. Oraingo honetan nahiko gaztain bildu dute eta noski, gaztain jate ederra ere egin zuten gero.

Euskararen Eguna abenduaren 1ean

laz bezala herriko hainbat talde elkartu dira abenduan Euskararen Eguna antolatzeko asmotan, eta aurten eguna aldatzea erabaki dute. Horrela, aurten abenduaren 1ean, larunba-



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABALEK UTZIA

Nahiko gaztain bildu zuten guraso eta haurrek egindako ateraldian.

tean ospatuko da. Hala ere, abenduaren 3rako zerbait egiteko asmotan dira, euskararen egun ofiziala errespetatuz. Oraindik ez da egitaraua osatu eta aurrerago idatziko dugu programa, oraingoz base-rritarrez jantzi beharko dela aurreratu dute eta herriko ondarearen argazkiak prestatzen joateko deialdia egin dute.

LAB eta Bilgune Feminista Sarriopapeleko emakumeen kontratazioekin pozik

Duela bi urte hasi ziren Sarriopapel lantegian emakumeak kontratatzeako kurrikulum bilketa egiten. Leitzaldeko Bilgune Feministako kideek eta LAB sindikatuak adierazi dutenez, egindako lanak fruituak eman ditu. Aurten ekainetik urrira bitartean aurreko urteetan baino emakume gehiago kontratatu dituzte. Bost hilabetetan kontratatutako langileen laurdena emakumeak izan dira. Horren ondorioz, aurtengo kurrikulum bilketa eta kontratazioen inguruan balorazio positiboa egin dute LAB eta Bilgune Feministako kideek.

**Fatxadak eta Teilatuak
Isolamendu eta Zaharberritzeak**

etxebizitzaren konfortaren hobekuntza
kondentsazio arazoaren moldatzea
aurrezpen energetikoa
berriztatze estetikoa

JACAR

**ZAHARBERRITZEA
Elbarren, 52 LEITZA**



T 948 126 011 www.jacarnavarra.com

GOIZUETA

GIZARTEA → AZAROAREN 17 eta 24AN

Umore Ona elkartearen eta Feria Egunak indarrez datoz

Azaroko
Kulturaldiari
bukaera
emanez

TTIPI-TTAPA

Lehenbiziko asteburuetako jubilatuen eguna, DVD emanaldi eta umeentzako ginkana eta berenduen ondotik, Azaroko Kulturaldiko egunik indartsuenak heldu zaizkigu. Larunbat honetan, azaroaren 17an, Umore Ona Elkartearen Eguna ospatuko da eta egoitzaren beheko solairuan egindako obren inaugurazioa ere egingen da. Bezperan, ostiralean 19:00etan Hego Amerikako argazki emanaldia eskainiko du Unai Bakerok Ganbaran. Azaroaren 23an, ostiralarekin, 19:30ean

bertso musikatuak eskainiko dituzte Estan-gak eta Luzek ganbaran. Eta azaroaren 24an, Feria Egunarekin boro-bilduko dira azaroko kultur egunak.

Guraso Eskola

Urtero bezala aurten ere Guraso Eskola martxan jarri dute, Gizarte Zerbitzuak, eskolak eta Guraso elkarteak antolatuta.

Guraso, gazte eta nahi duena joan daiteke martxan jartzeko bile-retara. Lehenengoa, azaroaren 29an, ostegunarekin, izango da eskolako jantokia 14:30etik 16:30era. Gai jartzailea Dabid Anaut euskara teknikari eta idazlea izango da. Euskara eta familiari buruz hitze-gingo du.



ARGAZKIAK: ANGEL SALABERRIA

Mus eta truk txapelketetako irabazleak

Jubilatuen Egunaren barrenean mus eta truk txapelketak jokatu ziren azaroaren 3an. Musean, Santiago Albistur eta Manolo Legarreta izan ziren txapeldu-nak eta trukean, berriz, Satur eta Maria Angeles Salaberria.



ARGAZKIAK: ANGEL SALABERRIA

Txapeldunak Burlatan, azpitxapeldun Gartzaronen

Urriaren 28an jokatu ziren Burlatako txapelketako finalak. Alebinetan, Aitor Aizkorbe eta Antton Apezetxea herritarrek lortu zuten txapela, Enaitz Telletxea igantziarrari eta Lizarrako Ruiz de Larramendiri 18-16 irabazita. Bezperan, Gartzaronen, Iker Salaberria azpitxapeldun izan zen infantil mailan, Alberdi azpeitiarrarekin. 16-18 gald zuten Oiarbide eta Aizpuru andoaindarren kontra.



UTZITAKO ARGAZKIA

Onddo eta tomate ederrak bildu ditu Laxaro Eskuderok

Laxaro Eskuderok bi ontto eder harrapatu ditu udazken honetan. Bat 900 gramokoa eta bestea 1,450 kilokoa. Baratzeari ere uztza ederra ere bildu du aurtengoan, eskuinean ageri den 1,350 kiloko tomateak bilduz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jubilatuen ateraldia kostaldera

Bidaian ibiliak dira herriko jubilatuenak. Donibane Lohizune bisitatu ondotik, Oiartzunen bazkaldu zuten eta Donostiko Parke Teknologikoan ere izan ziren, herrira bueltatu aurretik.

GERTAERAK → OIZ, ARANTZA, IGANTZI ETA BERAN EZAGUTU DIRA KASUAK

Gasa berrikusten duen enpresaren bisitekin kasu emateko ohartarazi du Foruzaingoak

Beharrezkoak ez diren berrikuste edo aldaketak egiten dituzte eta normalean baino garestiago kobratu

TTIPI-TTAPA

Oiz, Arantza, Igantzi eta Beran Eurogas S.L enpresaren izenean egiten ari diren gas berrikuspenetan irregulartasunak egon direla ohartarazi du Elizondoko Foruzaingoak.

Adineko jendeari gasa berrikusteko etxera egiten dizkieten bisitekin kasu emateko abisua luzatu dute. Etxeetan gasaren instalazioa berrikusi eta beharrezkoak ez diren konponketak egin behar direla erraten diete bezeroei. Osagai batzuk aldatu eta konponketak egin ondotik, normalean baino garestiago kobratzen dizkiete. Konpontze lan errazak izaten dira eta aldaketa norberak egiten badu 10 euroko kostua izanen lukeen lanarengatik, 80 euro kobratzen dituzte. Gainera, sinatzeko dokumentu bat eskaintzen dute konponketa egin baino lehen, horrela babes legala lortzen du enpresak. Paper hauek sinatzea ez dela beharrezkoa ohartarazi dute. Gisa honetako kasu berriren bat antzematzen baldin bada, Foruzaingoari jakinarazteko eskatu dute.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Paperak sinatzea ez da beharrezkoa.

IRARAITU IZAGUZU. BADABIL.

NAFARROAKO RURAL KUTXA

KontakturikGABeko txartela

Biiip... bezeroendako bakarrik

Erosketak txartelarekin ordaintzea orain sekula baino azkar, eroso eta errazagoa da. Eta beti bezain segurua.

Nahikoa da kontakturikGABeko txartel berria datafonora hurbiltzea, biiip... bat entzun, eta kitto!

Interesatua bazaud, etorri gure bulegoetara eta eskatu zure Nafarroako Rural Kutxaren kontakturikGABeko txartela.

www.sincontaktocma Navarra.com | [Jarri gurekin](#)

*20€ baino gutxiagoko ordainketetan ez da beharrezkoa PINa sartzea

Bilatu ikur hau kontakturikGABeko ordainbidea duten dendak aurkitzeko

BAZTAN

AZPIEGITURAK → 1,7 MILIOI LITRO UR SARTUKO DIRA

Ur biltegi berria egingen du Iturri-Ederrak Elizondon

Mariezkurrenak egingen du 10 hilabetez

TTIPI-TTAPA

Hemendik gutxira hasiko dira Elizondon ur biltegi berria egiteko lanak. Iturri-Ederra elkar-teak horrela, ur gehi-go pilatzeko aukera izan eta uraren presioarekin dauden arazoak konpondu nahi ditu. Lau eskaintza aurkeztu ziren eta Doneztebeko Mariezkurrena enpresarena aukeratu zuten. Hamar hilabeteko epea izanen dute lanak akitzeko. 1.300 metro koadroko eraikina izanen da, eta horretarako 4.111 metro koadroko lursaila erabiliko dute Zaldarriagan, ur biltegi zaharra baino gorago,



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Antzanbordako ur biltegia 1950. hamarkadan egin zuten eta lanean segituko du.

hileritik hurbil. 1950. hamarkadan egin zuten orain Elizondo urez hornitzen duen Antzanbordako biltegia.

Berriaren edukiera egungoa baino lau aldiz handiagoa izanen da, orain 400.000 litroko edukiera du eta be-

rrian 1,7 milioi litro ur sartuko dira. Ur hornikuntzaren presioa ere hobetuko da, Elizondoko etxebizitza altuenetara ura behar den bezala iristea bermatuz. Hala ere, ez dute Antzanbordako ur biltegi zaharra botako. Zaharrak hor-

nituko du ur biltegi berria eta berritik herrira banatuko da ura. Ur hornidura erregulatzea izanen da biltegi berriaren egin behar garrantzitsuenetakoa. Lanek 774,227 euroko kostua izanen dutela aurreikusten da.

GIZARTEA

Lekarozko ikasbidairako sarien zozketa egin dute

TTIPI-TTAPA

Lekarozko Institutuko ikasbidairako boletoen zenbaki saridunak jakinarazi dituzte.

Lehenbiziko saria, Lekarozko Iparraldean dextean 8 pertsonendako asteburua, 0194 zenbakiari egokitu zaio. Bigarren saria, Auritzeko landetxe batean bi pertsonendako gaua, 3.745 zenbakiari.

Hirugarren saria, Arizkungo Ordoki zalditegian bi pertsonendako ibilaldia, 1.431 zenbakiari.

Laugarren saria, Kortarixar tabernan 2 pertsonendako afaria, 2.741 zenbakiari.

Saridunek 699 766596 telefono zenbakira deitu behar dute eta hila-beteko epea izanen dute saria hartzeko.

ferreteria
Quevedo

**TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK**



Santiago 31 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 580 234 • Faxe: 948 581 210

KULTURA → MURRIZKETEI AURRE EGITEKO

Ikastolaren aldeko bertso saioa egingen da azaroaren 17an

Lujanbio, Arzallus, Silveira, Maia, Zubeldia eta Soto ariko dira

TTIPI-TTAPA

Baztan Ikastolako Guraso Elkarteak bertso saioa antolatu du azaroaren 17an, larunbatean 18:00etan Lur aretoan. Murrizketei aurre egin eta ikastola laguntzea da saioaren helburua eta bertan ariko dira Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Xabier Silveira, Jon Maia, Iker Zubeldia eta Julio Soto. Gai-jartzaile lana Fernando Anbustegik egingen du. Sarrera 10 eurotan salgai dago Elizondoko Fantxi, In-tza eta Pirrinen, Erra-

tzuko Zubipuntan, Donetztebeko Ekaitzan, Berako Errekalden, Lesakako Atxaspin eta Urdazubiko Karreteron. Sarrerarekin batera, Lur garagardotegian garagardo bat doan hartzeko aukera izanen da.

Sortu sortzen

Euskal Herri osoan bezala, Baztanen ere ezker abertzalearen erreferente politikoa izan nahi duen Sortu sortzeko lehen eztabaida saioa heldu den azaroaren 17an egingen da, alderdi politikoaren oinarri ideologikoen inguruan hain zuzen. Hitzordua Arizkunenea kultur etxean izanen da goizeko 10etan. Lehendabiziko eztabaida honi bertze hiruk jarraituko diote.



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Elizondoko Udazkeneko Feriak euripean

Euripean joan ziren Elizondoko Udazkeneko Feriak, baina halere giro ederra izan zen. Merkatuko Plazan azken urteetan baino azienda gehiago bildu zen, nahiz eta azken 20 urteetan 200 esplotazio baino gehiagok itxi behar izan duten. Karrikako saltzaileek 200 bat postu paratu zituzten, metro lineala 18 euro terdian ordainduz.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

UDAZKEN-NEGUKO KOLEKZIO BERRIA

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUNEA · 948 230 634

BAZTAN

KULTURA → HAMAZAZPI BERTSOLARI ARIKO DIRA

Eraberrituta dator Mariano Izeta bertso sariketaren bosgarren edizioa

Hilaren 23an bi kanporaketa egingen dira eta 30ean finala jokatu da, Elizondon

TTIPI-TTAPA

Bosgarren edizioa ailegatu da bi urtetik behin egiten den Izeta sariketa. Aurten eraberrituta dator bertso sariketa, saio bakarra egin beharrean hiru saio izanen baititu, bi kanporaketa eta ohi denez Elizondon jokatu den finala.

Bi kanporaketak azaroaren 23an izanen dira, Baraibarko ostatuan eta Barañaingo Haizea elkartearen. Osozara, 17 bertsolarik kantatuko dute bi saio horietan eta sei pasako dira finalera. Kanporaketak 19:30ean hasiko dira, merendu batekin lagunduta egongo dira eta

sarrera libre da. Baraibarko ostatuan zortzi bertsolarik kantatuko dute: Oskar Sanz de Acedo (Iruñea), Iker Gorosterrazu (Ituren), Amaia Elizagoien (Mugairi), Patxi Castillo (Bera), Mikel Juaniz (Iruñea), Kotte Plaza (Irurita), Xabi Maia (Elizondo) eta loar Tainta (Lesaka).

Barañaingo Haizea elkartearen, berriz, bederatziz izango dira bertsolariak: Aimar Karrika (Auritz), Egoitz Gorosterrazu (Ituren), Iban Garro (Lesaka), Haizea Beruete (Iruñea), Josu Sanjurjo (Lesaka), Unai Uberetagoena (Iruñea), Mikel Lasarte (Barañaín), Alazne Untxalo (Ituren), Ander Baiano (Barañaín).

Azaroaren 30ean jokatu da Elizondoko finala, kanporaketetatik sailkatuko diren sei bertsolariekin. Finalean ere, nobedadeak daude,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Iñaki Aleman iruritarrek irabazi zuen azkeneko Mariano Izeta Saria

oraingoan mahai bueltan egingo da, afal ostean. Elizondoko Kortarixar ostatuan jokatu da finala. 21etan izango da afaria eta horren ostean saioa. Prezioa 17 eurokoa da eta sarrerak aitzinetik erosten ahalko dira Elizondon zein Nafarroako Bertsozale Elkartean.

Izeta sariketa 2004. urtean egin zen lehen aldiz; aurten bosgarren edizioa jokatu da. Bost edizio hauetan, bertsolarien harrobia izan da eta hala izaten segituko du. Elizondoko Jon Barberena, Iruñeko Oier Lakuntza, Gartaingo Jon Elizetxe eta Irurita Iñaki Aleman izan dira Izeta sariketa orain arte irabazi dutenak.

Nafarroako Bertsozale Elkartea da Izeta sariketaren antolatzailea, Baztango udalaren laguntzaz. Horrez gain, Euskarabidea eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren babesa ere du ekimenak. Orain dela hiru urte sortu zen Baztango Bertso Eskolak ere laguntza eman du antolaketa lanetan.

Nafarroako Bertsozale Elkartek urtero antolatzen dituen ekimenen artean txandakatzaren diren Izeta sariketa eta Xalto sariketa daude. Horien helburu nagusia Nafarroako bertsolari gazte edo hasiberriei kantatzeko aukera ematea da. Izeta sariketa antolatzen ez den urteetan, Xalto sariketa jokatzeko da.

FLASH

Krisiaren aurkako bilgunea

Baztanen krisiaren aurka eta alternatiba sozioekonomikoen aldeko herritarren bilgunea sortzeko bilera azaroaren 22an, ortzegunarekin, egingen da 19:30ean Arizkunenean. Azaroaren 14ko Europa mailako mobilizazioen testuinguruan Elizondon elkarretartzea egin zen *Herrien eta langileen Europaren alde*. Kapitalaren erasoei erantzun goiburupean.

Askapena taldea sortzeko bilera

Baztanen internazionalismoa lantzeko eta Askapenaren taldea sortzeko bilera irekia egingen da azaroaren 19an, astelehena, 19:00etan Arizkunenea kultur etxean. Azkeneko urteetan munduko bertze herrietako askapen prozesuak ezagutuz baztandar dextente mugitu dira eta orain bakarka egindako bide hori antolatu eta elkartasun internazionalistan interesa duten herritar guztiei irekirik talde-ekimena abiatu nahi da.

ANTXITONEA
Hotel

24 lagela bihurtzekin • Apartaketa
Aire garbia gela guztietan • Hain modakala eta TB
Gela berria sukalde eta hotel zerbitzuarekin

Brailio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

libreria **nafarpress** liburutegia

ttiipi bartaia

%10eko
DESKONTUA
liburu eta
ikasmaterialetan, testu liburuak
eta bideoak izan ezik



Idoia Zabalza, Agoizko Berdintasunerako Lan Mahaiko kidea

“Landa garapena norbere etxetik hasi behar da eta horretan laguntzen du elkarbizitza partekatzen duten familien proiektuak”

Agoizko Udalak proiektu pilotoari ekin zion joan den urtean, Berdintasunerako Nafarroako Institutuaren laguntzarekin. Nafarroa osoan lehen aldiz elkarbizitza partekatzen duten familien proiektuari ekin zioten 2011ko irailetik abendura lau familiek eta aurten beste bat hasi da. Idoia Zabalza, Berdintasunerako Lan Mahaiko kidea eman digu proiektuaren berri.

Zer da elkarbizitza partekatzen duten familien proiektua?

Duela 3-4 urte Agoizko Udalean gizon eta emakumeen aukera berdintasunerako batzordea osatu zen. Berdintasunarekin lotutako hainbat gai eta helburu landu ziren eta hortik sortu zen ituna. Itun horren barrenean dago Cederna-Garalur eta beste kultur elkarteak, administrazioetako ordezkariak... Gaia lantzeko hainbat proiektu proposatu ziren eta Cederna-Garalur elkartek, zehazki, elkarbizitza partekatzen duen familia proiektua proposatu zuen. Gaia landuz eta sakonduz ikusi genuen beharrezkoa zela familien artean hori lortzeko nola-baiteko irizpideak eta jarraipena ematea. Joan den urtean egin zen lehen aldiz eta aurten bigarren fasea egin da. Lau familiek egin zuten iaz. Horietatik batek utzi

egin du, baina familia berri bat sartu da.

Zer eskatu eta zer eskaintzen zaie familia horiei?

Eskatu ez zaie ezer eskatzen, azkenean konpromiso bat besterik ez baita. Eskaintzen zaie elkarbizitzak ekartzen duen guztia, hau da, kanpoko lana, zaintza eta etxeko lanak partekatzea modu ardurasuan, bakoitzari dagokion mailaren arabera.

Zer prozesu egiten da familiekin?

Familia horiei laguntza ematen zaie eta lan egiten dute elkarriketen bitartez. Programak urte bakoitzerako 7 elkarrizketa-saio aurrikusiak ditu. Lehenbizikoan zein den asmoa azaltzen zaie, ezagupen teoriko batzuekin; bigarren, familien egoera zein den ikusten da, argazki moduko bat eginez, lanak nola banatzen diren...; hirugarren, autodiagnostiko bat egiten da, hasierako egoera horretan zer zailtasun ikusten duten eta zer lortu nahiko luketen; laugarren, hitzaldi bat ematen zaie; bosgarren, kontratu moduko bat egiten da, modu orekuan eta ardurasuan partekatzeke ekin-tzen zerrendan zehazten da, familiak berak hartutako helburuaren arabera, familia guztiek ez baitute zertaz helburu

bera izan behar; seigarren, bilkuran, kontratu horrekin lan egiten da eta azkenean, egindakoaren balorazio egiten da.

Landa garapenean zerikusia badu proiektu honek?

Partekatzea askotan administrazio publikoek egiten dituzten plan eta proiektuetan agertzen da. Nere ustez familiek eta gizartearen prozesuek eragiten duten ondorioek badute zerikusia landa garapenarekin. Landa eremua ez da garatuko, familiak eraldatzen ez bada eta gizartea bera eraldatzen ez bada. Garapena norberetik edo norbere etxetik hasi behar da.

GARAPEN AGENTEAK

Arantxa Arregi,

606 43 13 57 bidaso@cederna.es

Izaskun Abril,

606 40 86 13 baztan@cederna.es

Elena Irigoien,

617 60 93 28 lekunberri@cederna.es

Cederna Garalur

Alkaiaga Industrialdea, Alasta 2B

Ordutegia: 09:00 / 16:00

948 62 51 22

bidaso.admon@cederna.es



**Nafarroako
Gobernua**

URDAZUBI

OSPAKIZUNAK → LUGARANA JATETXEAN

Kantu Zaharren 9. Eguna azaroaren 24an ospatuko da

Bigarren diska
karrikaratu du
Mahai inguruko
kantuak taldeak

TTIPI-TTAPA

Euskal kantak abes-
tea maite dutenek urte-
ko hitzordua Dantxa-
rineako Peio Bentan
egin baitute aurten ere,
Lugarana jatetxean.
Azaroaren 24an egingen
da Kantu Zaharren Egu-
naren bederatzigarren
edizioa, sortzez era-
tsundarra baina Sunbi-
llan bizi den Angel Ma-
riezkurrenaren ekime-
nez.

Egun osoko egita-
raua antolatu du:
14:00etan bazkaria egi-

nen da, eta bazkalon-
doan kantuan ariko di-
ra. 20:00etan, berriz, be-
rendu-afaria egingen da
eta ondotik kantuan se-
gituko dute 22:30 alde-
ra bitarte.

Urtetik urtera izaten
dira sorpresak jaialdi ho-
netan, eta aurten ere ha-
la izanen dela azaldu di-
gu eratsundarrak. Ipar
zein Hego Euskal He-
rriko kantariak hurbilt-
zekoak dira, baina ezus-
tekoa zein izanen den
ez du argitu: «sorpresak
izanen dira baina egun
berean jakinen da zer
diren».

Dagoeneko agortu-
ak dira bazkarirako txar-
telak. Mariezkurrenak
350 txartel paratu zitu-
en salgai 55 eurotan,



UTZITAKO ARGAZKIA

Bigarren diska plazaratu du Mahai Inguruko kantuak taldeak.

baina egun batean de-
nak saldu zirela adiera-
zi dio TTIPI-TTAPARI.
Horren harira, «alde ba-
tetik, oso kontent» da-
goela aipatu digu, bai-
na bertzetik, «pena» ere
ematen omen dio, jen-
dea aukerarik gabe gel-
ditu delakoz. Joan den
urtean bezala, 155 eus-
kal abestiekin osatuta-
ko 2.500 liburuxka pres-
tatu ditu eta guztiak ba-
natzeko asmoa du. Ho-
rietatik 500 inguru aza-
roaren 24an bazkarira
agertzen direnek jaso-
ko dute, bere tokian.
Gainerakoak 5 eurotan

salgai jarriko dituzte eta
Kantu Zaharren Eguna
ez ezik, aurten Nafarroa
Oinez antolatu duen San
Fermin ikastolari lagun-
tzeko izanen da.

MAHAI INGURUKO KANTUAK II

Mahai Inguruko kan-
tuak II diska ere plaza-
ratu dute, 12 abestire-
kin. Alberto Zunzarren,
Antonio Inda, Itziar Ale-
man, Goreti Antzizar, Jo-
kin Irigoien, Juan Mari
Aleman, Kiko Gartxito-
rena, Lorea Babaze, Lu-
is Mari Retegi, Maxux
Elizegi, Patxi Mariezku-

rena eta Angel Ma-
riezkurrena ari dira kan-
tari. Musikariak, berriz,
Aitor Ibarra *Jalisko* (tron-
peta eta musika ekoiz-
lea), Beatriz Agirre (akor-
deoia), Joxerra Mitxele-
na (baxua eta gitarra)
eta Jon Irazoki (pianoa).
Elbeteko estudioan gra-
batu dute, Mikel Bigu-
ria eta Candi Fernandez
teknikariekin. 10 euro-
tan paratu dute salgai,
baina diska bakoitzeko
euro bat, krisiaren era-
ginez Bortziriak, Male-
reka eta Baztanen be-
harrean daudenei bide-
ratuko zaie.

GIZARTEA → ZARAGOZAN AZAROAREN 13AN

Urrezko Kulunka saria jaso du plazako jolasparkeak

TTIPI-TTAPA

Salbatore plazan pa-
ratu den Haur Parkeak
Urrezko Kulunka saria
jaso du Zaragozako jo-
lasparkeen lehiaketan,
10.000 bizilagun baino

guttiagoko herrietako
jolasparkeak saritzen zi-
tuen A kategorian.

Urriaren 25ean jaki-
narazi zioten udalari sa-
ri nagusia eskuratu zue-
la eta azaroaren 13an



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Uztailen estreinatu zen jolasparkeak saria jaso du.

jaso behar zuen saria,
Zaragozako Merkatarit-
za-Ganberako audito-
rioan.

Urdazubiko haurren
parkea uztailen estrei-

natu zen. Bi hilabetez
aritu ziren parkea ego-
kitzen, 50.000 euro in-
guruko aurrekontua izan
zuen lanean.

Epaimahaiak par-

kearen kokapena, ingu-
runearen integrazioa,
erabilitako materialak
eta haurren segurtasu-
na kontuan hartu zitu-
en erabakia hartzeko.

GIZARTEA → OSPAKIZUNA

Zazpiak Bat dantza elkarteak afari batekin ospatuko du bere 40. urteurrena

Abenduaren 1ean Lur Berri gelan

Joana GUERENDIAIN

Aurten Zazpiak Bat dantza elkarteak bere 40 urteak ospatzen ditu. Honen kariatara afari bat antolatua da Lur Berri gelan abenduaren 1 ean. Gaualdia arratseko 8:00etan hasiko da elkarteak eskainitako apertifa batekin, ondorengo afaria: kuia eltzekaria, ahatea ondo eta patatekin, ardi gasna, txokolatzeko pastiza, kafe-ttota eta arnoa. Afarirako txartelak 20

eurotan salgai izanen dira turismo bulegoan eta Pleka trinketean, azaroaren 25 a arte. Haurrentzako menu bat proposatua da ere 10 eurotan.

Eguberriko merkatua

Azaroaren 24 ean, larunabatarekin, herriko 3 eskolek eguberriko merkatua antolatzen dute Sarako plazan. Merkatu horretan saltzen dira burasok ekoiztutako objektuak: dekorazioak, bitxiak, haurrentzako jokoak eta bertze gauza aintz. Merkatua goizeko 9etatik



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Zazpiak Bat dantza taldekoak, 2010eko abenduan eskaini zuten ikuskizunean.

goiti idekiko dute eta egun osoan izanen da.

Santa Katalinetako besta

Urtero bezala Santa Katalinetako besta ospatuko da Saran, aurten azaroaren 25 ean egingen da. Meza Santa Katalineko kapera emanen da goizeko 10:30ean. Ondotik tripotxak janen dira Baratzartean. Erreserbatzeko zenbaki honeta-

ra deitu behar da: 05.59.54.20.48

Kirol emaitzak

Sarako Urtxintxek beti aintzina segitzen dute Frantziako kopan. Azken matxa Capbreton-en jokatu dute eta irabazle atera dira 26-9. Esku baloi taldea, sailkapenean bigarren da momentuko.

Urriaren 28 an errugbi taldea Lit et Mixe-n aritu dira, lehen ekipak galdu egin du 19-3. Al-

diz, erreserbak irabazi egin du 13-7. Sailkapenean lehen ekipa 6. da eta erreserba aldiz lehen tokian dugu.

Pintxoak

Heldu den azaroaren 18 an Herrira elkarteak pintxo apertifa bat antolatzen du Saran, herriko etxeko arkupean azpian. Presoei zuen sustengua erakutsiz momentu goxo baten pasatzeko aukera izanen duzue.

HERBINO ETXELA
EDENTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Maison et Vénus
SARA

Pierresene
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ · MUGAIRI

SOULE
Hileta artia
Tfnoa: 948 453 444
Mug. 929 859 583
ARLONEN

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

VENTA PEIO
T. 902 210 800 · www.venta-peio.com
Bera (Administratiboa) 30700 BERA | Berriz (Berriz) 30712 URRUTIA | Berriz (Berriz) 30700 BERA | Landa (Landa) 30700 BERA
Landibar

MONTXO OSTATUA
TABAKO-BENDA
Plater konbinatuak | Ogizortekoak | Pintxoak | Menuak enkarguz
Egunero irekia 09:00etatik 02:30era - Dantzarinetik 2 km. bera
ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039

SENPERE

OSPAKIZUNA → BEDERATZIGARREN ALDIZ EGIN DA

Gaitzeko giroa piztu da Amotze Larraldean kantu xaharren bazkariaren karietarat

Azken urteetan hil diren kantuzaleak ere ohoratu dituzte

Franck DOLOSOR

Kanpoan euria jauts ahala ari zuelarik, Larraldea baserriaren barnean giro bero beroa bizi izan da gan den hazilaren 4an Senpereko bederatzigarren kantu xaharren bazkarian. Herri kultura, ahozko ondarea eta adineko herritarrak ohoratuak izan dira Oxtikenekoak elkartek sortu eta orain Artxeroak gazte kantari taldeak apailatzen duen bestan.

Ehun bat kantuzale bilduak ziren Larralde-

an eta eguerdiko zintzur bustitzean berean kantuz hasiak ziren batzuk! Gero giro ona, umorea eta elgarrekin momentogoxoa pasatzeko gogo haunditu dira.

Azken urteetan hil diren kantuzaleak ohortu dituzte ere nehork ez baititu ahanzi Elorga, Apextei, Auger Ibarra edo Simone Bergara berriki zendua... Arbasoak gogoan bestak aintzina segitu du Fifi ne Billonen eta Dolores Fagoagaren kantuekin bertzeak bertze. Gazteek ere lekukoa hartu dute hor baiziren Senpere, Banka eta Aldudeko kantari gazteak, hauen artean Izarrakaldean hain ederki ari diren Xeline Bidart eta Kattin Intxauspe. Izan da hor kantu eder eta sa-

konak entzuteko parada. Bertzalde, Pantxoa Berho harakinak eta bere familiak moldatua zuten bazkaria, ahotik ezin utzia, eta denek atsegin haundiz ikusi zuten Artxeroak taldeko mutilek bazkaltzaleak zerbitzatu dituztela irriz eta kantuz! Aintzineko hitz orduetan bilduak eta grabatuak izan diren kantuak Leku Ona etxean saltzeko diren zonbait liburu eta diskota agertzen dira. Kantu xaharren eguna bi urte guziz ospatzen da baina ikusiz aurtengo giroa zoin ederra izan den, aintzek uste dute maizago behar litzatekela egin...

Hasteko goresmenak besta hau sortu dutenei eta lekukoa hartu dutenei, agian luzaz!



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Gaitzeko giroa piztu zen Larraldean.

inprenta lanak egiten ditugu
ideiatik hasi eta etxean izan arte

ttipi-ttapa



Telefono
948 63 54 58
info@ttipittapa.com



1.000 ale + 92€



8.000 ale + 140€



1.000 A4 + 88€



1.000 ale + 107€



EZKONTZAK

Eneko Lopez Eskudero eta **Joana Oteiza Unson**, Goizuetakoa eta Legasakoa, urriaren 20an Legasan.
Jexux Telletxea Iantzi eta **Naiara Jañez Bardaji**, Lesakakoa eta Donostia-koa, azaroaren 2an Lesakan.
Morinière Florent eta **Campo Muller Edith**, azaroaren 3an Saran.



SORTZEAK

Illan Larralde, Sarakoa, urriaren 14an
Joritz Iguzkiagirre Irigoien, Arantzakoa, urriaren 27an.
Unai Iratzoki Agirre, Lesakakoa, urriaren 28an.
Nasean Charly Peroncel Fagalde, Sarakoa urriaren 31n.
Aiert Baraibar Goñi, Aresokoa, azaroaren 2an.
Mikel Betti Goyeneche, Sarakoa, azaroaren 2an.
Julene Rodriguez Urrutia, Leitzakoa, azaroaren 4an.

Rekordatorioak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatu

ttipi-ttapa
Arantzazoko, 19 | ETXALARRA | 948 655 458

HERIOTZAK

Emiliana Ibarrea Iturralde, Arizkunkoa, urriaren 23an, 87 urte.
Teresa Irigoien Arozena, Almandozen, urriaren 24an, 97 urte.
Juanita Galarregi Etxenike, Elizondokoa, urriaren 31n, 91 urte.
Donato Soria Ariztegi, Etxalarkoa, azaroaren 1ean, 77 urte.
Zipriano Ezpanda Gartxitorena, Elizondokoa, azaroaren 4an, 101 urte.
Juan Fermin Ariztimuño Urriza, Leitzan, azaroaren 5ean, 58 urte.
Tomas Ilarregi Karrikaburu, Doneztebekoa, azaroaren 5ean, 73 urte.



Tomasa OTXOTeko LASAGA

Luis Ordoki «Gaxtelu»ren alarguna

Lesakan, 2012ko irailaren 18an, 86 urte zituela

Zazpi hilaute ta gero, joan zara atxikirekin ze nolako hutsunea, ze tristura, ta zenbat min kasu batzutan bizia alde egiten digu arin zu gabe gure «gaxtelua» ez da inoiz izan berdin atzean utzi genittun zurekin hainbat zeregin solas, kanta, mendira joan, nahi genuen baina ezin nahiz eta denbora gutti pasa dugun elkarrekin atzo, gaur eta betirako egonen zara gurekin.

Gero arte, amaxi

ZURE BILOBAK ETA BIRLOBAK



Martin URROZ ERVITI

Urrozen, 2011ko azaroaren 30ean, 78 urte zituela

I. URTEMUGA

1933ko irailaren 19an Urrozko Etxeberriko borda baserrian jaio zinen, fruta saltzaile eta abeltzain lanetan zinen gustora aritzen, muserako prest zintugun umorez etxean aurkitzen, lasaitasuna eta bakea zeruan aurki ditzazun dizugu bihotzez desiratzen.

BABAZE FAMILIAREN PARTETIK

Rekordatorioak egiten ditugu

ttipi-ttapa

Koskontako Bidea, 7-1
LESACA | 948635458

HERRI KIROLA → URRIAREN 20AN DONOSTIAKO VICTORIA EUGENIAN EGIN ZEN SAIOAN

Liburua aurkeztu eta markak ondu dituzte Harria 100 jaialdian

Harria eta harrijasotzaileen azken 100 urteetako historiari aitortza

TTIPI-TTAPA

Urriaren 20an, Donostian HARRIA 100 ekitaldi handia ospatu zen, Harria taldeak antolatuta. Helburua, azken ehun urteetako harriaren historia, eta harrijasotzaileei aitortza egitea zen. Horretarako, bi urtez egindako ikerketaren ondorioz egin den liburua aurkeztu zen, non harrijasotzaren sustatzaileei, izen handiko kirolariei, bizirik dauden 100 harrijasotzailerik eta harri mitikoei omenaldia egiten zaien.

Eguna *HARRIA 100 urte Aitortza Historia* liburuaren aurkezpenarekin hasi zen, San Telmo Museoa. Liburuaren egile diren Patxi Jauregi, Joseba Urretabizkaia eta Miguel Iriartek, Donostiako udaletxeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Kutxako ordezkariak lagunduta aurkezpena egin zuten.

Eguerdiaren, Victoria Eugenia Antzokian, herri kirola musika, antzerkia eta dantzarekin uztartzen duen ikuskitun berritzailea agertu zen taula gainean. Oreak TX, Kukai dantza konpainia, Amaren Alabak kantariak eta hainbat herri kirolari eta eki-



UTZITAKO ARGAZKIAA

Harria 100 jaialdian parte hartu zuten harrijasotzaile batzuk eta liburuaren egileak.

librista, hiru harrijasotzailearen errekor saiakerekin uztartu ziren. Errekor saiakera egin zuten herri kirolariak Aimar Irigoien, Idoia Etxeberria eta Urdax Magunazelai izan ziren.

Magunazelai abadiñoarrak, 15 urterekin, 200 kiloko harria altxatu zuen, aitzinetik zuen marka 9 kilotan hobetuz. Epaileak lehengo altxaldia ez zion balekatzat eman, baina bigarrenetan lortu zuen. Aimar Irigoien berak ere adin horrekin lortu zuen, baina errezil darra zaharxeagoa zen marka egin zuenean.

Ondoren, Idoia Etxeberriaren txanda izan zen. Oriotarraren nahia 150 kiloko harri errektangularra jasotzea zen, eta horretarako bost minutuko saio bat izan zuen, eta marka lortuz gero, orain arte emakume



UTZITAKO ARGAZKIA:

Azken 100 urteetako historia biltzen duen liburuaren azala.

batek ofizialki inoiz egin ez duena egingo zuen.

Azkenean lau jasoaldi lortu zituen Idoiak, eta marka ederra utzi zuen eginda. Lanik handiena lehen jasoaldiak eman zion, doi-doi lortu baitzuen bizkarraren gainean berdintzea. Bigarrenagoa, berriz, dotore jaso zuen, eta hirugarrenagoa, lan gehiago eman bazion ere txukun jaso zuen. Agian jasoaldirik ederrena

laugarren eta azkena izan zen.

Azkenik, Aimar Irigoien txanda izan zen, eta errezil darra ere ez zuen hutsik egin. Honak 125 kiloko zilindro zaharra jaso behar zuen bost minutuan, baina lehen berak zeukana ondu behar zuen. 43 jasoalditan zegoen marka, eta Donostian bigehiago eman zizkion, lan bikaina eginez.

Ondoren, Manteo Kiroldegian 800 pertsonentzako bazkaria eta liburuan agertzen diren kirolari omenaldia egin zitzaion. Hau guztia bertsolari eta zuzeneko musikaz lagundurik.

HARRIA 100 egunaren sustatzaileak harria eta herri kirolarekin arduratuak dauden 6 pertsona dira. Etorkizunera begira indarrak bartzeko ekitaldia antolatu nahi izan zuten.

HARRI JASOTZEA

Aitzinako kirol baten ehun urteko historia dokumentatua

TTIPI-TTAPA

Harri jasotzeari buruzko lehenbiziko dokumentazioa 1910. urtekoa da, nahiz eta herri kirol hau aunitzez lehenagokoa den. «Modalitate zaharretakoa da, baina ez dago horren inguruko dokumentaziorik eta agiririk» dio Patxi Jauregi, Harria 100 liburuaren egileetako batetik. Joseba Urretabizkaia argazkilariak, harrijasotzaile bakoitzari bere harri kuttunarekin argazkia ateratzen dio: «Ez daude argazkietarako posatzera ohituak, baina modelo onak izan dira», aipatu du Urretabizkaia.

Kirol hau apostuen inguruan jaio zen eta Arteondo izan zen ikuskizuna plazara eraman zuena eta gaur egun ezagutzen ditugun harrien neurriak etapiak ezarri zituen. Harrijasotzearen bigarren iraultza Iñaki Perurena leitzarrarekin ailegatu zen. «Harria ulertzen eta gartzen jakin izan zuen», dio Urretabizkaia. Argazkilariaren ustez harrigarria da 100 kilo ez duen pertsona batek bere pisua hiritan altxatu izana. Baina harrijasotzaileek ez ezik, harriek ere bere pertsonalitate eta izaera propioa dute hainbat kasutan, hala nola Albizuri handia edo Igeldoko harriaren kasuan. Azken hau Uxarbek eta Luis Mari Telleriak ateratu zuten itsasotik.

SALTOAK → LESIONATUA BUKATU DU DENBORALDIA

Espainiako Freestyle txapelketa garrantzitsuena irabazi du Berako Martxel Arribillagak

Aurten lehenengoz munduko txapelketa batean parte hartu du

TTIPI-TTAPA

Bizikleta ganean hegan. Ia ia ezinezkoak diruditen salto eta akrobaziak eginez. Duela zazpi urte hasi zen Freestyle kirolean Martxel Arribillaga Indaburu, 19 urteko beratarrak. Aur-

ten hirugarren urtea egin du profesional bezala. Aurreko urteetan proba internazionaletan aritu zen eta Espainiako Txapelketa bi urtez jarraian irabazi du. Aurten lehenengoz mundu mailako txapelketa batean parte hartu du «FMB World Tour 2012an parte hartzera gonbidatu ninduten eta baietz esan nuen». Maila aldaketa nabarmena dela dio «munduko txirrindulari hobereenen aurka lehiatzea uste baino gogorragoa izan da». Lortu dituen



UTZITAKO ARGAZKIA

Arribillagaren salto ikusgarriak FMB World Tourrean ikusi dira lehenengoz.

emaitzekin gustura dago «uste nuena baino postu hobean geratu naiz eta heldu den urtean aurtengoa hobetzea espero dut».

Lehiaketa ugaritan parte hartu du aurten, eta Espainiako proba garrantzitsuena irabazi du duela aste batzuk, Madrilgo 'Festibike' lehiaketan erakustaldi bikaina egin ondotik. Lehiaketaren bezperako egunean ez zuen garai-penarekin amesten, zor-

tea ez zuen bere alde «entrenamendu saioetan lurrera muturrez erori nintzen eta kolpea oso gogorra izan zen, ahoa lehertua nuen. Ez nuen uste gehiago saltatzen ahalko nuenik». Baina, aldezturik egindako lanak bere fruituak eman zituen «ez nengoen nire egoerarik hoberean, baina aurretik entrenatzen pasatako ordu guztiengatik lehiaketa irabaztea lortu nuen». Horregatik dio

«proba hau irabazi izanak garrantzia berezia du niretzat».

Denboraldi amaiera ez da erraza izan «hankako lotailu-haustura izan nuen eta denboraldi amaierara iristea gogorra izan da». Etorkizunari begira, ez du bizikletatik jeisteko asmorik «hankari deskatsua bat emanen diot eta berriaz forma onean nagoeanean, heldu den denboraldirako prestatzen hasiko naiz».

ATLETISMOA → XXXII. EDIZIOA EUROPEAN ETA HOTZAREKIN EGIN ZEN

Durangoko David Garcia Gilek irabazi du aurten ere Lizuniagako Igoera

130 korrikalarik parte hartu zuten, inoiz baino gehiagok

TTIPI-TTAPA

Joan den urtean bezala, Durangoko David Garcia Gil nagusitu zen urriaren 27an Beran jokaturako XXXII. Lizuniagako Igoeran. Eztegarako pilotalekutik Lizuniagako kaxkora bitarteko 4,9 kilometroak

osatzeko 17 minutu eta 21 segundu behar izan zituen. Bigarren, Ion Garraus irundarra izan zen (17:37) eta hirugarren Mikel Albeniz donostiarra (17:44). Korrikalariak euriari eta hotzari aurre egin behar izan zioten, helmugan 6 gradu bertzerik ez baitzuen markatzen termometroak.

Albeniz beterranoen mailako koxkarik gorenera igo zen, sailkapen orokorrean laugarren

eta bosgarren izan ziren Frantziako Olorongo François Champagne (18:01) eta Santi San Miguel doneztebarrarekin batera (18:09). Hortaz, sailkapen orokorrean seigarren izan zen Mikel Beuntza ultzamarra izan zen hirugarrena senior mailan (18:18). Denak ere, Abdelfatah Loujari marokorak 2008an markatik (16:03) urrun gelditu ziren eta Gure Txokoa elkarteak hu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Handiak baino lehen, ttikienak aritu ziren lasterka.

rrengo urterako gordezituen marka hori hobetzeagatik eskaintzen zituen 300 euroak.

Emakumezkoen artean, Naiara Casi donostiarra (22:31) gailendu zitzaion Maika Ariztegi iturendarrari (23:29). Halere, Maikak lehen postua eskuratu zuen beterranoen mailan. Irene Almandoz beratarrak izan zen bigarrena se-

nior mailan (23:46) eta Leire Telletxea beratarrak hirugarren (24:10). Emakume beterranoetan, Maika Ariztegiren gibeletik, Irene Matxierena eta Maite Bengoetxea beratarrak sailkatu ziren.

Denera 130 korrikalari abiatu baitziren Lizuniagako maldetan goiti, inoiz baino gehiago.

AIZKORA → AZAROAREN 18AN ARBIZUN

Ez da eskualdeko aizkolaririk izanen Euskal Herriko txapelketa nagusiaren finalean

Jon Rekondo leitzarra zazpigarren izan zen Elizondoko kanporaketan

TTIPI-TTAPA | LESAKA

Azaroaren 18an, igande eguerdiko 12:30etik aitzinera jokatu da Arbizuko kiroldegian Euskal Herriko lehen mailako aizkolaritxapelketa nagusiaren finala eta joan den urtean bezalaxe, ez da

eskualdeko aizkolaririk izanen. Floren Nazabal (Etxarri Aranatz, Nafarroa), Aitzol Atutxa (Dima, Bizkaia), Joseba Otaegi (Zizurkil, Gipuzkoa), Iñaki Azurmendi (Arriaran, Gipuzkoa), Unai Otaño (Ibarra, Gipuzkoa) eta Joxe Mari Olasagasti (Igeldo, Gipuzkoa) izan ziren Elizondoko kanporaketan finalerako txartela lortu zuten aizkolaria, eta bakoitzak launa kanpandiko, lau 60 ontza-



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Floren Nazabal izan zen onena Elizondoko kanporaketan. Jon Rekondo, aldiz, finalerako kanpo gelditu zen.

ko eta lau oinbiko moztu beharko ditu Arbizun.

Floren Nazabal izan zen kanporaketako lehenengo sailkatua eta joan den urtean sei segundorengatik galdu zuen txapela berreskuratzeko faboritotzat jotzen dute gehienek. 15 minutu eta 13 segundo behar izan zituen lanak akitzeko eta honela, Santiago Arrospeidek

1986an ezarritako marka hobetu zuen. Aizkolaria guztiek iazko denborak hobetu zituzten eta materialak zerikusia izan zuten. Nazabalek erraterako, 3 minutu eta 43 segundoan hobetu zuen iazko denbora eta 02:20 minutuko aldea aterazi zion Atutxa, bigarren sailkatuari.

Kanporaketako eskualdeko ordezkari ba-

karrak, Jon Rekondo leitzarraz, zazpigarren egin zuen eta finalaren atarian geratu zen. Rekondok lan erdietan kasik minutu bateko aldea ateratzen zion Olasagastiri, baina, azkenean zazpigarren izan zen.

Igandean jakinen da nor izanen den Euskal Herriko I. mailako aizkora txapelketako txapeldun berria.

SOKATIRA → NAFARROAKO TXAPELKETA

Amaiurrek talde gaztea atera du eta zail izanen du berriz txapela janztea

Lehenbiziko saioan Berriozar gailendu da

TTIPI-TTAPA

Jokoan da Nafarroako goma gaineko sokatira txapelketa. Lau jardunaldietatik bi jokatu dira dagoeneko eta hau irakurtzen duzunera, ezagunak izanen dira gizonen 640 kiloko

eta emakumezkoen 390 kiloko txapeldunak zein diren. Azaroaren 3an Gorritin jokatuak saioan ikusitakoaren arabera, Berriozar eta Sakana izan daitezke txapeldunak, nagusitasunez irabazi baitzuten. Amaiurrek, gizonen talde arrastearekin, galdu egin zituen Berriozarren kontrako bi tiraldiak eta Txantreaen kontra bat irabazi eta bertzea gal-



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Amaiurrek talde gaztea atera du aurtan eta zail izanen du txapelen lehian sartzea.

du. Kategoria hauetako bigarren eta hondar saioa azaroaren 10ean jokatzekoa zen Lakuntzan.

Ondotik, azaroaren 18an, gizonen 600 kiloko lehen jardunaldia, eta talde mistoen

420 kiloko lehen jardunaldia jokatu da, oraindik erabaki gabeko lekuan. Gizonen taldearekin, Basaburua-Imotzek ere taldea aterako du pisu honetan, Berriozar, Txantrea eta Amaiurrekin batera. Talde misto-

ak, berriz, Sakana-Amaiur, Basaburua-Imotz eta Berriozar izanen dira. Bi kategoria hauetako txapela Berriozarren azaroaren 24an jokatu den bigarren saioan erabakiko da.

ERREMONTA → ETORKIZUNeko IZARREI BIDERATUTAKO TXAPELKETA

Endika saldiastarrak eta Aizpuru III.ak irabazi dute Promozio txapelketa

Azaroaren 3ko finalean 40-27 irabazi zieten Ezkurra II eta Olazar doneztebarrei

TTIPI-TTAPA

Endika Urrutia saldiastarrak eta Aizpuru III azpeitiarrak irabazi dute Oriamendi 2010 enpresaren Promozio txapelketa, azaroaren 3an Galarretan jokatu-tako finalean Ezkurra II eta Patxi Olazar doneztebarrei 40-27 irabazita.

Endika izan zen partidaren jaun eta jabe eta Promozio txapelketa



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES (ORIAMENDI 2010)

Aizpuru III eta Endika txapeldunak, Olazar eta Ezkurra II ondoan dituztela.

dagoeneko ttiki gelditu zaiola erakutsi zuen. Jo-koan sartzen zen bakoi-tzean, tantoaren nora-bidea aldatzen zuen, pi-

lotari abiada handia ematen zion eta tantua gorrien alde paratzen zuen. Doneztebeko bi-kotea, urdinez, ez zen

ongi aritu eta horrek ere erraztu zuen gorriek txapela janztea.

Halere, hasieran di-rua Ezkurra II eta Ola-

zarren alde atera zen. 11-6 galtzen hasi arren, hamahiruna berdintzea lortu zuten eta berriz ere urdin kantatzen zuten artekariek. Baina hor hautsi zen berdintasuna, Endika agintzen hasi baitzen eta arerioek bere erritmoaren arabera jokatu behar izan zuten. Aizpuru III ere bel-durrez aritu zen, arris-katu gabe, eta pilotak onera eramanez, baina hori aski izan zen, En-dikaren joko puntua eta tantoa akitzeko modua kontuan hartuz.

Honela, Endika eta Aizpuru III.ak hartu du-te Matxin VI eta Agirre-zabalaren lekukoa pro-mozio txapelketako ira-bazleen zerrendan.

PAXAKA → ABENDUAREN 22AN JOKATUKO DA FINALA

Hamar hirukote hasi dira XIII. paxaka txapelketan

Laxoa
Elkartearen alde
1.000 euroren
zozketa eginen
da finalaren
egunean

TTIPI-TTAPA

Laxoa elkarteak ha-mahirugarren aldiz an-tolatutako paxaka txapelketa azaroaren 10e-an abiatu da. Hamar hi-rukote eman dute ize-na, horietatik zazpi Iruri-takoak eta Arraioz, Do-neztebe eta Oizko ba-na.

Bi multzotan banatu dira taldeak eta lehen-biziko fasea ligaxka mo-duan jokatu da, aza-roaren 10etik abenduaren 8ra. Multzo bakoi-tzeko lehenbiziko bi hi-rukoteak sailkatuko di-ra abenduaren 15ean jokatu diren finaler-dietarako eta abenduaren 22an, finala eta hi-rugarren posturako par-tidak jokatu dira, gai-nerako partidak beza-la, Iruritako Aranabia pi-lotalekuan.

A multzoan **Arraioz** (Aritz Alunda, Mikel Min-degia eta Miguel Mari-

torena), **Doneztebe** (Jo-su Juanena, Unai Sapu-ppo eta Jokin Arraztoa), **Irurita B** (Egoitz Prim, Igor Urrutia eta Joseba Urtasun), **Irurita D** (Mi-guel Angel Iñarra, Mi-guel Garate eta Mikel Ballarena) eta **Irurita F** (Jagoba Ramos, Jexux Etxenike eta Iñaki Za-baleta) ariko dira.

B multzoan, **Irurita A** (Karlos Goikoetxea, Guillermo Etxenike eta Jexux Garate), **Irurita E** (Joxe Mari Salaburu, Iñaki Etxandi eta Cesar Iñarra), **Irurita G** (Xa-bier Bazterrika, Mitxel



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Iruritako Aranabian jokatu-ko dira partidak larunbatero.

Etxenike eta Oskar Urru-tia), **Irurita H** (Cesar Sa-rratea, Xabier Ripa eta Xabier Barberena) eta **Oiz** (Iker Bereau, Ugutz Zelaieta eta Koldo Min-degia) ariko dira.

MILA EUROREN ZOZKETA

Bertzalde, Laxoa El-karteak 1.000 euroren zozketa bat antolatu du;

zozketa Iruritako Gizar-te Bilguneko ostatuan abenduaren 22an egi-nen da, 20:00etan hau da, Paxakako finala jo-katu ondotik. Sari ba-karra dago: 1000 euro-koa eta bi zorbaki ate-rako dira, lehenbizikoa urtarilaren 5eko ez ba-da ateratzen, ordezkoa sarituko da.

azaroak 15-29

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Solasaldiak



BERA | 2012.11.23

Prostituzioari buruzko mahainguru interesgarria

Prostituzioan aritzen den Montse Neirak bere esperientziaren berri emanen du eta *Mujeres progresistas* taldeko Ainhoa Aznarez-ek kontra eginen dio.

Ospakizunak



URDAZUBI | 2012.11.24

Kantu Zaharren Egunean bederatzigarren edizioa

Dantxarineako Lugarana jatetxean bilduko dira aurten ere, Kantu Zaharren Egunean. Mahai inguruan eguna abesten pasatzeko hitzordua.

Zinema



LEITZA | 2012.11.16-18

San Martin besten barrenean Gozategiren emanaldia

Asteburuan *Barrura begiratze-ko leihoak* filma ikusteko aukera izanen da. Igandeko saioan, Enara Goikoetxea zuzendaria ere zinean izanen da.

Bertsoak

ELIZONDO

Bertso saioa Lur aretoan

Azaroaren 17an bertso saioa antolatu du Baztan Ikastolako Guraso Elkarteak Lur aretoan, 18:00etan. Xabier Silveira, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Julio Soto, Iker Zubeldia eta Amets Arzallus ariko dira kantari.

LESAKA

Bertsoak eta gaztainak

Azaroaren 17an Baserde elkarteak gaztainak jatea antolatu du Bortzirietako Bertso Eskolak 20:00etan. Unai Iturriaga, Iker Zubeldia eta Josu Goikoetxea.

GOIZUETA

Bertso musikatuak

Azaroaren 23an Oskar Estanga eta Migel Mari Elozegi *Luzeren* eskuetik, bertso musikatuak 19:30ean Ganbaran.

Solasaldiak

BERA

Mahai-ingurua prostituzioaz

Azaroaren 23an *Una mala mujer. La prostitución al descubierto* solasaldia eskainiko du gaztelaniaz Montse Neirak, 18:00etan Beralandetan. Ondotik mahai-ingurua.

LEITZA

Xabier Amurizarekin azken liburuaz

Azaroaren 28an *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako* liburuaren aurkezpena egingen du Xabier Amurizak.

Ospakizunak

URDAZUBI

Kantu Zaharren Eguna Lugarana jatetxean

Azaroaren 24an ospa-

Erakusketak

URDAZUBI

Monasterioko kalostrapean

Abenduaren 31 arte ikusgai izanen da monasterioko kalostrapean *Euskal Herriko margogintzaren 50 urteak* erakusketa.

LESAKA

Beti Gazteko argazki lehiaketa

Azaroaren 12tik abenduaren 2ra ikusgai izanen dira Beti Gazte elkartearen egoitzan argazki lehiaketara aurkeztutako lanak.

ELIZONDO

Elizondoko abesbatza 70. urtemuga

Azaroaren 16an Elizondoko Abesbatzaren 70. urtemugako argazki erakusketa ikusgai Arizkunenean.

New Yorketik Erratzura Diana Iniestarekin

Azaroaren 17tik abenduaren 9ra Diana Iniestaren *New Yorketik Erratzura* margo erakusketa Arizkunenean asteburu eta besta egunetan, 12:00etatik 13:30era eta 18:00etatik 21:00etara.

Kontzertuak

ELIZONDO

Folk Ametsetan Zikloa

Azaroaren 18an Ganbara, Euskal Herriko folk taldea ariko da 19:00etan Arizkunenean.

Elizondoko abesbatza kantari

Azaroaren 18an Elizondoko Abesbatzak 70. urtemugako ahots kontzertua emanen du 13:00etan parrokiari.

Kalejira eta entzunaldiak

Azaroaren 20an Santa Zeziliako kalejira eta entzunaldiak karriketan eta Arizkunenean, 17:00etatik aitzinera.

ERRATZU

Los del Rayo taldea Zubipuntan

Azaroaren 16an kontzertua eskainiko du Los del Rayo taldeak Zubipuntan, 23:00etan.

Feriak

DONEZTEBE
Udazkeneko Feria
Azaroaren 16an

Udazkeneko Feriak ospatuko dituzte Donezteben.

LESAKA

Bortzirietakoazienda Feria

Azaroaren 29an Bortzirietakoazienda onenak sarituko dituzte.

GOIZUETA

Azienda Feria

Azaroaren 22an Azienda Feria eguna antolatu dute. Xehetasunak 52. orrian.

PROPOSAMENA

LESAKA

Bortzirietakoazienda lehiaketa hilaren 29an

Gure inguruan azienak saritzen dituen feria bakarra da Lesakakoa. Hortaz, bortz herrietako behi, ahari eta behor onenek saria izanen dute. Baina azindaz gain, hainbat eskulangile eta elikadura produktuen postuak ikusteko modua izanen da, baita aizkora eta bertso saioak, pilota... Bezperan, trikitixa jaialdia eta ajoarriero lehiaketa.



tuko da 9. Kantu Zaharren Eguna.

Zinema

LEITZA

Zine denboraldia

Azaroaren 16 eta 18an *Barrura begiratzeko leihoak* filma eskainiko da zinemari. Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean. Igandeko saioan Enara Goikoetxea, zuzendarietako bat izanen da.

DONEZTEBE

Zine denboraldia

Azaroaren 18an *Kung Fu Panda 2* filma eskainiko da zinemari 16:30ean eta *Men in Black 3* filma 18:30ean.

BERA

Iñaki Otxoa de Olzari buruzko dokumentala

Azaroaren 17an *Pura vida* dokumentala (Iñaki Otxoa de Olza) eskainiko da Kultur Etxean, 19:00etan euskaraz eta 20:30ean gaztelaniaz.

ERRATZU

Emakumeen aurkako indarkeriaz

Azaroaren 23an Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren inguruan dokumentala 21:30ean lixutegian, Erratzuko kultur elkar-teak antolatuta.

Antzerkia

BERA


XIV. Kafe Antzerki Zikloa

Azaroaren 16an *Morrison eta Gartzia: kultureko antzezlanak* eskainiko dute Jon Urraza & Jon Zubiaga Osoronek 22:00etan Kaxerna Gaztetxean.

Azaroaren 23an *Xentimorik gabe* antzezlanak

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Urak dakarrena

TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA

Ttartalo, 2012

Urak dakarrena Toti Martínez de Lezearen azken lana dagoneko liburu dendetan da. Liburuak euskal kostaldeko herri desberdinetan kokatutako 35 istorio biltzen ditu, Baionan hasi eta Muskizera-raino. Protagonista, garai eta egoera sozial desberdineko emakumea da. Idazleak kostaldeko emakumeen ikuspegi berritzaile eta trebea eskaintzen du, Euskal Herriaren historian hain presente eta, aldi berean, horren baztertuak izan diren emakumeena, hain zuzen ere. Historiak arrantzale, abenturazale, indiano, merkataria eta, oro har, gizonezkoen testigantza eta gertaerak jaso ditu. Oso urriak izan dira, aldiz, garai haietako emakumeen bizipenak jasotzen dituzten dokumentuak. Emakume haiek bizitzari aurre egin zioten, erabakiak hartuz, borrokatuz, euren eta familiaren sostengu eta protagonista bihurtuz eta Toti Martínez de Lezeak, ezkutatuan gorde den historia horietan oinarrituz, kontakizun ederrak sortu ditu.

Musika



Hegoko lautadaren ertzetik

BALERDI BALERDI

Musikorta, 2012

Hamar kanta grabatu ditu Iruñeko talde betearnoak bere laugarren grabazioan. 15 urte pasa dira azken CDa argitaratu zutenetik eta grabazio berriari aitzineko bi diskoetan azaltzen zen aniztasun musikari eusten diote, power pop estiloa da Balerdi Balerdikoena, eta ez da belarria zorroztu behar grabazioan folk, rock gogorra edo ska bezalako erritmoak antzemateko. Aitzinekoetan bezala, kantu egilea Toño Muro izan da eta hitzetan Pello Lizarralde idazlearen laguntza izan u. Autoekoizpen hau Bizkaiko "Musikorta" estudioan grabatu eta nahasi dute 2012ko udan zehar, Xabier Nabarro Jota teknikariaren ardurapean. Balerdi Balerdi osatzen duten Sergio Ibarrola Zara (bateria eta perkusioak, ahotsak), Tño Muro (gitarra, harmonikak, ahots nagusia) eta Karlos Ortiz (baxua) musikariek izan dituzten laguntzen artean Batiz gitarrak jolearena da aipagarriena.

Internet



Euskal Herriko moneta abiaraziz

EUSKALMONETA.ORG

Euskal Moneta Elkarteak lanean ari da heldu den urtaririlean Eusko deitu Ipar Euskal Herriko moneta abiarazteko gisan. Hunek lagunduko ditu euskararen erabilpen publikoa eta lekuko garapen elkartasunezkoa eta ekologikoa. Badira 40 pertsuna proiektu horri lotuak, baina ikusirik egiteko gelditzen den lana, badute bertze batzuen beharra, bere sei lantaldeetatik bati juntatzeko.

Huna zoin diren delako lantaldeak: partikularrak eta elkarteak jakinaren gainean atxikiko dituen, eusko baliatzea onartuko duten lantegi eta sal-erosle-en sareak osatuko duena, logistika, finantzak, informatika eta itzulpen gintza ardurak. Astean bilkura batera joanez, edo zure eskualdean eusko-ren eza-gutaraziz.

eskainiko dute Ramon Agirre eta Inazio Tolosak 22:00etan Bidaxka ostatuan.

Txotxongilo saioa

Azaroaren 25ean *Batuta* txotxongilo saioa eskainiko du Taun-taun taldeak 17:30ean Kultur Etxean, Labiaga ikastolara antolatuta. Sarrera: 3 euro.

IRURITA

Huts Teatroaren Publikoari Gorroto

Azaroaren 25ean *Publikoari Gorroto* antzezlanak eskainiko du Huts Teatra taldeak 19:00etan Damaso Zabalza Bilgunean. Ander Lipus, Iñaki Ziarrusta eta Miren Tirapu dira antzezleak.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango

Mendigoizaleak

Azaroaren 18an Elizondo-Antzaborda-Irrintzi-Basabar-Berdaitz-Aldude-Urepel-Legarxuri-Auritz ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleak (06:00).

Azaroaren 25ean Baigorri-Olandoi-Arraolako Harria-Munoa-Baigorri ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleak (07:30).

SUNBILLA

Ulibeltzak mendi taldea

Azaroaren 24an denboraldi bukaerako afaria antolatu du Ulibeltzak Mendi Taldeak.

ZUGARRAMURDI

Atxuria mendi taldea

Azaroaren 25ean Sarr-Bera ibilbidea egingen du Atxuria mendi taldeak.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI. 2 bizitza salgai, mobleztatua. Berogailua, igogailua, trastelekua eta bazerarekin. 17 milio peze eta 18 milio pezeta/106.000 eta 112.000 euro. ☎ 948 585036.

LESKA. 66 m²ko pisua salgai herri erdian. 2 trasteleku, garajea eta igogailuarekin. Berri-berria. Prezio negoziagarria. ☎ 657 708866.

ANZABAL
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

DONEZTEBE. Bilogela-ko etxebizitza berritua salgai 15m²ko trastelekuarekin. 112.000 euro. Ez gelditu ikusi gabe, ez duzu deus galduko. ☎ 630 160353.

SUNBILLA. Pisua salgai edo errentan emateko. 2 logela, sukaldea, komuna, egongela, balkoia, terraza, tximenea, kalefakzio zentrala, trastelekua, garajea eta igogailua ditu. Kalitatezko eraikin berria, prezio onean. Deitu lasai. ☎ 628 473539.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

IGANTZI. 70m²ko pisu berria errentan emateko, 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, kalefakzioa, eta marra garajea. Prezioa: 400 euro. ☎ 670 218613.

LESKA. Albistur karrikan lur azpiko bajera errentan emateko. ☎ 618 962937.

ORONÓZ-MUGAIRI.

Pisu berria errentan emateko. Sala-sukalde ederra, logela bat, komuna, garajea eta trasteroa ditu. Mobleztatua. Berogailua eta igogailuarekin. Etxea oso argitsua eta alai da. Igerileku komunitarioa (udan), padeleko pista, frontoia eta jardina ditu. Prezioa: hileroko 380 euro + gastuak. ☎ 661 898970.

DONEZTEBE. Kale na-

gusian, 30 m²ko lokala errentan ematen da. Bi eskaparate ditu. ☎ 616 605071.

LESKA. 110 metro²ko pisua errentan emateko. Etxe guztiak kanpora ematen du eta bi balkoi eder ditu. 3 logela, egongela handia, sukaldea, komuna eta trasteleku handia. Mobleztatua eta berogailuarekin. Prezioa: 450 euro.

BERA. Kantonberri karrikan 3 logela, bainua, sukaldea eta jangela dituen pisu amueblatu errentan ematen da. ☎ 688 609905.

ELIZONDO. Akulegi karrikan 2 logelako pisua errentan emateko. ☎ 646 774177.

LANA

eskariak

Emakumezkoa, autoarekin, etxeko lanak egi-

teko, dendari bezala edo zerbitzari lanetan aritzeko eskaintzen da. Frantses apur bat badaki. ☎ 689 126822.

Xareta, Baztan, Malerreka, Bortzirriak edo Ultzama aldean **emakumezkoa** eskaintzen da **interna** moduan lan egiteko. Pertsona helduak eta haurrak zaindu edo garbiketa lanak eginen lituzke. ☎ 602 473794.

ZERBITZUAK
denetarik

BAZTAN, MALERREKA eta BORTZIRIAK. Egur loteak egin, materialetarako arbolak bota eta ateratzen dira, prezio oso onean. ☎ 600 789034.

**MOTORRAK**

salgai

Nissan Almera Tino 1.8 monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005 urtekoa. 65.000 km. Arras ongi zaindua. ☎ 628 572273.

ANIMALIAK
oparitzeko


5 hilabeteko arratoi txakurkumea eta 11 hilabeteko mastin emea oparitzen dira. ☎ 629 417078.

DENETARIK
salerosketak

ORONÓZ. Egurra xehe-tua salgai. Paga eta harritza. Etxera eramaten da. ☎ 676 242520.



DONEZTEBE. Egoera ezin hobean dagoen erradiadore elektrikoa salgai, termostatoarekin. ☎ 619 913375.



SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎ 659 867287/ ☎ 699 461394.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(urriaren 22tik 28a bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 42 €

Zerri gizena
1,420 € kilo. (-0,06)

Zerramak:
0,920€ Kg/bizirik. (-0,03)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,10

1.koa 3,84
2.koa 3,68

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,28
1.koa 4,00
2.koa 3,86

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 150,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruxak 120,00
idixkoak 150,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,97/3,07
Zaldi-behorrak: 1,81/2,01

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 8,60/8,70
8-10 kilokoak: 6,60/7,00

25 ardi saltzeko. Azaroa eta abenduan umatzeko. ☎630 137257.

IDIAZABAL. Arkume larruak salgai, eskuz landuak. Informazio gehiagorako deitu ☎ 669 995433 edo idatzi eiderka@hotmail.com helbidera.

Bigarren eskuko **trikitixa** bat erosiko nuke. ☎655 701165.

Masadora salgai prezio onean. ☎627 735113.

DENETARIK galdu/aurkituak

LESAKA. Poney garañoa, marroi iluna faltatu da. ☎948 637492.

ERRATZU. Xorroxin inguruan argazki kamara bat galdu da. Norbaitek aurkitu badu, mesedez telefono honetara deitu. ☎ 609 448103.

ARANTZA
Zurgindegia.....
- Klase gutietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe
Jose Miguel Errodoño
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gertikale - ARANTZA

GANIX
Tallerra
J 948 63 06 69
Borjandete, 6 BENA (NA)

ROSA BELZUNESI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordutxo
☎ 948 272011 (RUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urutia 42-2.0 - ELIZONDO

azaroko
zk. saritua
5.429

Zonaldeko produktuekin osatutako lotea

Saritua hilaren 30a baino lehen deitu behar du Bortzietako Hiri Hondakinen Mankomunitatera

948 63 52 54

EZ GELDITU PNEUMATIKO ZAHARREKIN, GUK EROSIKO DIZKIZUGU!

10€² GURPILENGATIK* **20€⁴** GURPILENGATIK*

Gainera:
-%50 bigarren pneumatiko berria + montajea eta ekilibratua doan*

* Eskaintza baliagarria 2012-12-31 arte.
Marka hauekin baliagarria: Goodyear- Michelin
Dunlop- Continental- Pirelli- Bridgestone

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE!

Talleres SANTESTEBAN, S.A.
Leitzako errep. 80 | Doneztebe | T. 948 450 262
F. 948 450 857 | doneztebe@red.renault.es

ttiipi-ttapa
etxera bidaltzea nahi baduzu,
deitu telefono honetara:
(0034) 948 63 54 58
www.ttiipi.net

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK
ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

EGIN ZAZU TTIPI-TTAPAREN ALDE PROIEKTU ZENBAKIA 50063
Zuri ez zaizu ezer kostako guri 10€ laguntza emanen digute

AUKERATU GURE PROIEKTUA

10€

- Nafarroan erroldatutako 18 urtetik goitiko guztiek parte har dezakete
- Ez da beharrezkoa Nafarroako Kutzako edo La Caixako bezero izatea
- Nafarroako Kutxa Fundazioak 10 euro bideratuko ditu aukeratzen den proiekturako.
- Internetez egiten ahal da www.cajanavarra.com webgunean sartuta edo, TTIPI-TTAParena aukeratzen baduzu, Lesakako bulegoan lagunduko dizugu eskaera egiten eta zalantzarik baldin baduzu deitu 948635458 telefonora

ZUK AUKERATU, ZUK ERABAN
2013 CAJA NAVARRA

urtebetetzeak

Argazki soilak: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko btxeak; 4) www.ttipi.net bitartez



Urriaren 31n LAIENK 5 urte beteko ditu. Zorionak Xubilde eta Arrosetar guztien partez. Ongi pasa eta berendu goxoa prestatu! Muxu



ARIANE GARTZIAK bi urte beteko ditu azaroaren 11n. Zorionak familiaren partez, bereziki Sunbilla eta Eli-zondoko lehen-gusinen partez.



Berako JON UGALDE VILLANUEVAK urtea beteko du azaroaren 16an. Muxu potolo bat eta aunitz urtez!



Etxalarko AIMAR AGINAGALDEK 7 urte beteko ditu azaroaren 24an. Zorionak eta muxu haundi haundi bat etxeko guztien partetik.



Gure AITOR TRAKTORISTAK 4 urte beteko ditu azaroaren 21ean. Zorionak bere familia guztien partetik bereziki aitabxi eta amaxien partez. Ekarri pastelak traktorean!



MARI CARMEN eta INAXIOK azaroaren 21ean, 25 urte ezkondukin eginen dituzte. Zorionak familia osoaren partetik eta bereziki alaba Maider eta Seilaren partetik.



Arantzako ARITZ IPARRAGIRRE ALBERDIK urtea beteko du azaroaren 3an. Muxu haundi bat Arantz eta Erreteriarako familiaren partetik. Zorionak begi pottoko.



ALAZNE ZUBIETA IRIBARRENEK bi urte beteko ditu azaroaren 26an. Zorionak etxalarko eta lesakako familiaren partez.



ARATZ BARANDARAIN ARANALDEK urtea beteko du azaroaren 23an. Zorionak etxeko gixon pottokoari! Segi goxo goxo ametsetan! Ondo pasa eta txokolateko muxu erraldoiak!



Doneztebeko NAHIA IRIARTE MIKELARENK bi urte beteko ditu azaroaren 16an. Muxu eta besarkada haundi bat amatto eta attatoren partetik. Zorionak bitxita!



Arantzako ALAITZK 2 urte beteko ditu azaroaren 17an. Zorionak eta muxu erraldoi bat etxeko tiikiari familia guztien partetik!



Goizuetako PAULAK 7 urte beteko ditu azaroaren 22an eta NEREA 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztien partetik.




Goizuetako RAMON APEZETXEA ZUBIRIK urteak beteko ditu azaroaren 9an. Zorionak eta muxu asko zure biloben partetik.




Doneztebeko NAHIA IRIARTE MIKELARENK 2 urte beteko ditu azaroaren 16an. Zorionak Sunbilla amaxi, ataubxi, osaba eta izebaren partetik. Segi beti bezain alai guapita!




ALAITZ, LUIS eta JAVIER IBARRAK azaroaren 17 eta 25ean urteak beteko dituzte. Aunitz urtez familia guztien partetik ekipo! Ongi pasa eta muxu haundi bana!



MARTXEL URROZ TORRECILLASEK 2 urte bete ditu azaroaren 7an. Aunitz urtez familia guztien partetik! Muxuk!



Etxalarko IRANTZ OTXOTEKO BENGOTXEA azaroaren 11n urtea beteko du. Zorionak familia guztien partetik.



Lesakako OIHAN OYARZABAL LARRALDEK urtea beteko du azaroaren 15ean. Zorionak Lesaka eta Berako familiaren partetik!!! Muxu haundi bat



BENAT ETXABIDE, gure etxeko futbolariak, 5 urte beteko ditu azaroaren 23an. Zorionak attona Joxe, amaxi Ramoni, Moñi, Josu, Jon, Rakel eta bereziki Ainitze eta Amaiurren partez! Besarkada haundi bat eta berendu goxoarekin ospatuko dugu!!!!




Aurtizko LEIANE ALTZURI MINDEGIK azaroaren 22an urtea beteko du. Zorionak ataubxi-amaxi, osaba-izeba eta bereziki atta eta amaren partetik. Muxu potolo bat.




Sunbilla gure OSABA ZUBITOK azaroaren 17an urteak beteko ditu. Aunitz urtez familia guztien partetik eta nola ez argazkian zurekin dauden bi sorgintxo horien partez. Ongi ongi pasa osaba eta berendu goxoa prestatu. Muxuk



NATALIA GOIENETXE GONZALEZ lesakarak 9 urte beteko ditu azaroaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



EKAITZ ERRANDONEA IRIBARRENEK urtea beteko du azaroaren 25ean. Zorionak familia guztien partetik. muxu haundi bat!!



Leitzako ALAIA MARTINIKORENA ARIZTMUNOK azaroaren 20an urtea beteko du. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztien partetik eta bereziki bere ahizpa Iriaren partetik.



Irurritako MAXKO eta JUANIKOT AIT-ALABEK urteak beteko dituzte azaroaren 4 eta 5a abenduaren 11n. Nahiz eta urrian besta ederrak bota, espero dugu hiruen artean txabolan bazkari eder bat prestatzea! Zorionak ta aunitz urtez Azaldeike txabolisten partez!



Leitzako AROA ASTIBIA ALKORTAK 6 urte beteko ditu azaroaren 23an. Urte askoz etxekoan partez! Muxu goxo bat eta ongi ongi pasa!



Oronozko UNAI TORRES ALEMANEK 8 urte beteko ditu azaroaren 23an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren eta bereziki Markelen partez



Berako XABIER ORTEGO BEOLAK 3 urte bete ditu azaroaren 13an. Zorionak eta muxu haundi, haundi bat familia guztien partetik!!



Birziklatu

Ontziek bizitza luzea dute



Kartoizko ontziak, papera,
egunkariak, aldizkariak.



Plastikozko ontziak,
latak, briakak.



Beirazko botilak,
flaskoak, poteak.

Birziklatu

Uste ez baduzu ere, birziklatzeari esker ontziek bizi luzea dute. Baliteke zure seme-alaben bizikletan eraldatuta aurkitzea, zure jantzi polar kuttunean, irakurriko duzun hurrengo liburuan edota ureztontzi batean... Zeren, manera batera edo bertzer, birziklatzeak bizitza dakar. Eta zure laguntzarekin, denok zainduko dugu gure ingurumena.



Maierriko
Zerbitzu orokorrer
Mankomunitatea



HARRIA 100

LIBURU BERRIA

Harriaren inguruan inoiz egin
den argazki liburu osoena!

100 urteko historiari aitortza

Lehengo eta oraingo argazkiak
90 argazki berri baino gehiago
Harrijasotzaileen biografiak
Aitzindariak, izandakoak eta direnak



Joseba Urretabizkalearen argazkiak



Testuak: Patxi Jauregi eta Miguel Iriarte

Euskara/gaztelera bertsioa
23 x 29 cm.
296 orrialde
Tapa gogorrak

Frantsesezko eta
ingelesezko bertsioak
ere eskuragarri.

Eskuratu, LESAKAko **ONINART** dendan
edo www.harria.eu webgunean sartuz.